

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Hauteskunde aldia hementxe da

IÑAKI ALTUNA > 11

«LINGUA NAVARRORUM»:

Euskararen kontrako korrontea vs
euskararen aldeko manifestua > 12

2018ko ekainaren 2a | XII. urtea • 571. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

HESIAREN ATARIAN
AUKERAREN ESPEROAN

> 4 Fadel SENNA | AFP



**Melillako kaleetan babesgabe,
Europara iritsi nahian** 04

**Galapagoetako lehorreko iguanak,
irla batetik bestera eramane** 07

**Erdoganen Turkia ez da adarra
jotzen ibiltzeko aproposena** 08

**Euskararen aurkako deiak
euskararen aldeko manifestua
piztu du** 12

**Arrabio arrunta, basoak eta
legendak babestuta** 16

**E.lkarrizketa: Nerea Barjola
Ramos** 22

Ahoa bizi, belarria prest 27

In fraganti: Amaia Olasolo 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



12



16



22



28



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Beldurra gainditu
- 10 **Oier Gorosabel:** Fisioterapia kirol proba herrikoietan
- 11 **Iñaki Altuna:** Hauteskunde aldia hementxe da
- 15 **EXPRAI**
- 19 **Joxean Agirre:** Urteak
- 19 **Nekane Zinkunegi:** Zaindua eta zaintzailea
- 20 **Gaizka Amondarain:** Komunitate delegatua
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Aldarrika ditzagun gure memoria lekuak
- 30 **Ana Elozegi:** Motxiladun haurrak



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Beldurra gainditu

Europaren baitan badira estaturik gabeko herrien autodeterminazio eskubidea aitortu eta errespetatzen duten estatuak eta badira errespetatzen ez dutenak ere. Hartara, badira estatu demokratikoagoak edo demokrazia maila altuagoak, eta badira demokrazia maila txikiagoko estatuak ere. Autodeterminazio eskubidea aitortzera iritsi direnen artean, guztiek ez dute beti jarrera bera izan, prozesu bat eman da estatutotan, barne demokratizazio prozesu bat.

Estatuen jarrera da prozesu independentisten bidea determinatzen duen ezaugarri nagusia. Eskoziako erreferendumak Erresuma Batuen oniritzia zeukan. Baina Erresuma Batuen jarrera eta politika ez dira beti berak izan, galde diezaietela adibidez irlandarrei. Nekez uler daiteke Eskoziako erreferenduma Ostiral Santuko bake akordioa kontuan hartu gabe. Gaurko errealitatea, aldiz, hori da, eta Eskozian independentzia –eta Irlandan batasuna– aldeko gehiengo bat dagoenean gauzatuko da. Independentzia edo batasuna eskuratzea posible da, legala da, ez da utopia bat, aukera erreal bat baizik. Irlanda adibide hartzen badugu, argi dago Ostiral Santuko bake akordiora arteko estrategia errepublikanoak demokrazia eza eta gatazka salatzea zituela oinarri. Erabakitze eskubidea eskuratu ondoren, berriz, bere proiektu politikoan zentratzen da. Bigarren fase horretan herritarren gehiengoaren babesa eskuratu beharra dute, bai ala bai, bestela ez dago aurrerapausorik ematerik. Eta horretarako, mezua, estrategia eta lanabesak ezberdinak dira.

Gure herrian ere antzekoa izan da bidea urte luzez. Gatazka politikoaren erresoluzioak Euskal Herriaren aitortza eta autodeterminazio eskubidearen errespetua ekarri behar zituen. Hori izan da gure helburu estrategikoak eskuratzeko helburu taktiko nagusia urte luzez. Estatu espainolak –epe luze batean behintzat– ez duela horrelakorik aitortuko jabetzea izan zen nire ustez gure askapen mugimenduan estrategia aldaketa bultzatu zuen ezaugarri politiko nagusietako bat. Horrek, estatuaren

jarrerak eta jarrera hori aldatzeko ezintasunak, gure prozesuaren oraina eta etorkizuna determinatzen ditu erabat. Beste modu batean esanda: Euskal Herria Erresuma Batuan edo Danimarkan egongo balitz, oso egoera differentean aurkituko ginateke, dudarik ez izan horretan. David Fernandez katalanak ederki laburbildu zuen bide berria honakoa esatean: «Independentziara eramango gaituen bide demokratiko bat eraikitzerik ez badago, demokraziara eramango gaituen bide independentista eraikiko dugu». Katalanek ondo erakutsi digute bidea zein den, beren prozesuaren gauza on zein akatsekin.

Baina, nahiz eta bidea eta estrategia aldatu ditugun, gurean testuinguruak berdina izaten jarraitzen du eta, ondorioz, gure kasuan lana bikoitza da oraindik. Batetik, proiektu independentistaren aldeko gehiengo zabala eskuratzea. Eta, bestetik –edo horrekin batera–, independentzia lorgarria bilakatuko duen bide bat adostea. Gure buruarekin zintzoak bagara, abertzaleon arteko kalapita

David Fernandez katalanak bikain adierazi du: «Independentziara eramango gaituen bide demokratiko bat eraikitzerik ez badago, demokraziara eramango gaituen bide independentista eraikiko dugu»

gehienak bide horren ingurukoak direla konturatuko gara, eta ez horrenbeste helburuaren ingurukoak. Horren arrazoia estatuan nagusi den demokrazia eza eta horrelako bide batek dakartzan edo ekar ditzakeen ondorio latz guztiak dira. Beldurra. Gurean independentzia eskuratzea ez ei da posible, ilegal da, «ez da gertatuko», utopia bat izaten jarraitzen du, ez da aukera erreal bat... Eta horri buelta ematea, independentziaren aldeko babes zabal bat eskuratzea bezain garrantzitsua da. Esango nuke katalanen lorpen nagusietako bat azken hori dela. Lortu dute independentzia aukera erreal bilakatzea katalanen gehiengoarentzat, bai independentziaren alde dauden artean bai kontra dauden artean ere. •

MELILLAKO KALEETAN GURASO EDO INOREN BABESIK GABE, EUROPARA IRITSI NAHIAN

Javi West Larrañaga


Marokoko hirietatik abiatuta, makina bat adin txikiko elkartzen dira Melillan, Iberiar penintsulara heldu nahian. Europara iristea da beren asmoa eta ez dute gustuko zentro ofizialetan sartuta egotea. Izan ere, kalean biziz gero, gauero saia daitezke itsasontzietan sartzen.

Hamalau urteko Abdellahk bost hilabete daramatza Melillan. Gutxienez ehun aldiz saiatu da Europarantz doazen itsasontzietara sartzen. Hori lortzeko, Abdel bere lagunak esplikatu duenez, alantrezko bi hesi gainditu behar dira eta bost metroko soka erabilia jaitsi: «Gero kamioi bat bilatu behar duzu bertan ezkutatzeko. Eta lortzen baduzu, ontzian sartzen zara». Horrez gain, polizia espainolak, txakur eta guzti, saihestu behar dituzte. *Riski* deitzen diote kalean bizi diren ume gehienek ia gauero egiten duten operazioari. «Ostiral eta domeketan ez dugu egiten, ez dago ferryrik-eta», dio Abdelek.

Ezin daiteke Melillan barna ibili kalean bizi diren ume marokoarrak ikusi barik. *Mena* deitzen diete, haien akronimoa espainolez. Beraientzako zentro bat dago mugaren ondoan, La Purisima, baina bertan tratu txarrak jasateko arriskua izateaz gain, jendez gainezka izan ohi da beti. Sortu zenean 180 ume har zitzakeen, eta, egun, erreforma batzuk egin ostean, 500 inguru hartzen ditu. Hiriko agintariek ere onartzen dute ez dagoela leku nahikorik.

Abdellah hor izan zen denbora labur batez, baina ospa egin zuen: beste hiru lagunekin partekatu behar zuen lur gainean jarritako koltxoia, eta, gainera, zaharrenen abusuak jasan behar izaten zituen.

Jose Palazon haurren eskubideen aldeko Prodein elkarteko presidentek dioenez, zentroa espainiar armadaren barrakoi bat zen garai batean eta ez ditu horrelako gune batek behar dituen gutxieneko baldintzak betetzen. Ez dago hiriaren estolda sistemara konektatuta eta putzu beltz bat baino ez du. «Militarrak orain 15 urte utzi zuten gutxieneko osasun baldintzak ez betetzeagatik; arratoiak eta guzti zeuden. Orduan 100 soldadu besterik ez zeuden bertan. Orain egoera are okerragoa da; putzu beltza beteta dago eta



Nerabeek bi hesi gainditu eta bost metroko soka erabilia jaitsi behar dituzte Melillako portuan sartzeko. Gero kamioi bat bilatu behar dute ezkutatzeko. Lortuz gero, ontzian sartuko dira. Guztiek dakite hori eta sarri saiatzen dira, oso bizi baldintza kaskarrak jasan behar badituzte ere. Irudian, adingabeak beren aukeraren zain. Fadel SENNA | AFP

Ezin daiteke Melillan barna ibili kalean bizi diren ume marokoarrak ikusi barik. Beraientzako zentro bat dago mugaren ondoan, La Purisima, baina bertan tratu txarrak jasateko arriskua izateaz gain, jendez gainezka izan ohi da

Ossama Fezekoa da, baina, galdetuz gero, beti erantzuten du Casablancakoa dela, Melillakoak erabat nazkatuta baitaude Fezeko umeez: «Fezekoa naizela esanez gero, Poliziak jo egiten nau»



ur fekalak daude korridoreetan». A zer panorama!

Melillako kaleetan bizi diren gazte gehienak ez dira Rifekoak, Marokoko hirietatik bertara heldutako nerabeak baizik. Horrenbestez, arabieraren Afrika iparraldeko dialektoan egin ohi dute berba, ez Rifeko amazig hizkuntzan. Horregatik, haietako askok esaten dute Rifekoek barrualdeko arabiarrek baino hobeto hartzen dituztela. Gehienak Fez



Melillako kaleetan bizi diren gazte gehienak ez dira Rifekoak, Marokoko hirietatik bertara Europara heltzeko iritsitako nerabeak baizik.

Javi WEST

ingurukoak dira, baina badira Rabat eta Casablancakoak ere.

Zentrotik ihes egiteko arrazoietakoa bat Europara heltzea da. Kanean biziz gero, gauero saia daitezke itsasontzietan sartzen. «Zentroan geratzen badira –dio aktibistak–, 18 urte betetzean poltsa bat ematen diete arrokekin eta alde egiteko esaten diete, inolako dokumentu legalik eman barik». Bakar batzuek soilik lortzen dute egoitza bai-

mena; umeen ustez gehienak Rifekoak bertakoak. Beraz, adinez nagusi izan eta hiritik botatzea saihesteko kalera jotzen dute, Europara lehenbailehen heltzeko. Gazte askok familiak atzean utzi eta Europara joatea erabakia dute, inguruko gehienek gauza bera egin dutelako. Melillan sartzea kontinente aberatserako pauso bat baino ez da beraiantzako. Ez da helmuga.

Lagunen istorioek deitzen dituzte Europara. Denek uste dute haiek hobeto bizi direla Melillan baino. Abdellah berak lagunak ditu Suedian, Estatu frantsesean eta Ingalaterran. Baita Estatu espainolean ere. Gogoan du bere lagunak Europako argazkiak Fezen ikusi zituela eta erabaki zuela berak ere gauza bera egitea. Oraindik hitz egiten du haiekin. «Guztiak daude Melillan baino askoz hobeto –dio–. Europa osoan zehar daude sakabanatuta».

Ossama ere Fezekoa da, baina galde-tuz gero beti erantzuten du Casablancakoa dela, Melillakoak erabat nazkatuta baitaude Fezeko umeek: «Fezekoa naizela esanez gero, Poliziak jo egiten nau». Harraga gobernu kanpoko erakundearen 2016ko txostenaren arabera, gazteek «polizia indarkeria jasaten dute egunerokotasunean». Abdellah eta Ossamak diote Poliziak jo egin dituela portuan *riski* egiten saiatzean.

Ez dute Fezen faltarik sumatzen, bertan ez baitago zer eginik, baina oraindik familia gogoan dute. Lagun batek Marokoko SIM txartel bat du eta gura-soei deitu nahi dieten bakoitzean marokoar estaldura dagoen Melillako leku batera joaten dira. Abdellahk dio familiak itzultzea nahi duela, baina, dagoeneko erdibidean dagoenez, ez du nahi.

Saharaz hegoaldeko etorkinek hesian salto egin behar izaten dute, edo txalupaz sartu. Ume gehienak, ordea, mugatik sartzen dira. «Ez da zaila arabiarra bazara –azaldu du Abdelek–, zaindarien lagun egin eta azkenean sartzen

utziko dizute». Beste batzuk, jendearen artean ezkutatuta sartu dira.

Asko kalean eskale bihurtzen dira. Edo lan txikiak egiten saiatzen dira. Abdelek autoa aparkatzea eskaintzen die diskoteka bateko bezeroei, baina ez diote beti ordaintzen. «Batzuetan euro bat edo bi ematen dizkirate eta beste batzuetan ezer ez. Neure buruari esaten diot: 'behintzat eskerrak eman dizkirate'». Ez zaio gustatzen dirua eskatzea. Bere lagun gazteenei ez die axola.

Gauero, Prodein elkarteko laguntzailerik jakiak eta edariak ematen dizkiete etxe gabeko umeei portuan. 40 inguru elkartzen dira eta gero batzuk alde egiten dute eta beste batzuk portuko hesia gainditzten saiatzen dira.

Palazonek saiakera arrakastatsuak aspaldi honetan jaitsi egin direla dio: «Lehen, gau batzuetan hogeitak lor zezaketen. Orain sei-zazpi inguruk lortzen dute astean». Melillak portuaren zaintza hobetu egin du azken urtean, baina ez da hori beherakada esplikatzeko arrazoi bakarra. «Eguraldi ona hastean askoz gehiagok lortuko dute –dio Palazonek–. Oso zaila da zehatz-mehatz zenbat ume dauden jakitea, zenbakia asko aldatzen baita. Oraitxe bertan 30 eta 100 artean egon litezke».

KANPOTARRAK IPAR AFRIKAN

Palazonen arabera, Melillako hiritar gehienek enbarazu moduan ikusten dituzte umeak, haiekin topo egiteak «dilema moral bat» planteatzen dielako. Berak Melillako politikariei botatzen die errua, umeak bertakoak ez direla argudiatu eta hiriak ez lukeela haien zaintza bermatu behar defendatzeagatik. Gainera, Estatuko legediak adin txikiko inor ilegala ezin dela izan dioela gogoratu du aktibistak, eta, beraz, Melillako hiria «legez kanpo» jokatzeko ari dela umeen zaintza ona ez bermatzen. «Adingabe batek hanka bat Espainian jartzea nahikoa da Melillako hiri autonomoa bere arduradun bihurtzeko. Haurroi babesik ez ematea legez kontrakoa da», gehitu du Palazonek.

Melillak askok adingabeak kritikatzeko dituzte, Ramadan garaian hiria askoz hutsago sumatzen dutelako.

Umeetako batzuk Marokora joaten dira familia bisitatzerako. Palazonen ustez, iritzi horiek umeen kriminalizazioaren parte besterik ez dira. Nabarmendu du normala dela umeek senitartekoak ikusi nahi izatea. «Kasu askotan haurroi familiek txarto portatu direla sinestarazi diete eta bakarrik uztea horren ondorio dela. Beraz, Melillara heltzen direnean garaile sentitzen dira eta etxera joan nahi dute, senideei erakusteko gizonak direla jada, lortu dutela». Askok badakite dituztela inoiz senitartekoak berriz ikusiko eta umeak kritikatzeko, naturala den erreakzio batengatik, ez dela bidezkoa dio.

Adingabeek ez dituzte agintarien abusuak soilik jasaten, Melilla bertako herritar musulmanen jazarpena ere jasango ohi dute, eta hiriko populazioaren erdia dira. «Ez dituzte umeak sinpatia gehiegirekin ikusten», nabarmendu du Palazonek. Abdel are zorrotzagoa da: «Ez dugu arazorik *payo*-ekin, musulmanak dira gutaz gehien abusatzen dutenak».

Ossamak hiru marka ditu aurpegian horren froga moduan. 25 urte inguruko gizon batek eta bere lagunak jo egin zuten diskoteka baten aurrean, kaleko ume arabiarrek izateagatik. Haietako

batek aurpegia ebaki zion laban batekin: «Zerbait esnifatuko zuten».

Ez zuen arazorik izan ospitalera joatean, baina, Palazonek azaltzen duenez, mediku eta erizain batzuek ez dituzte haurrok artatu nahi eta hori lortzeko justifikazio faltsuak erabiltzen dituzte. Salatu duenez, haurrotako batzuei beste mediku batzuek onartutako erradiografiak egiteko aukera ukatzen dieten profesionalak ere badira. «Behin ospitaleko langile batek esan zidan ezin zutela ume bat tratatu, ilegala zelako», salatu du Prodeineko buruak. Baina Estatu espainoleko legediaren arabera adingabe guztiek dute «edozein espainiarren tratamendu bera» jasotzeko eskubidea. «Arartekoak onartu egin ditu niri heldu zaizkidan azken hiru kexak».

BIZI BALDINTZAK

Umeok oso bizi baldintza eskasak dituzte. Abdellahk kartoi kontainer batean egiten du lo, lagun batekin. Beste batzuk, abandonatutako etxeetan, zubi azpian edo muga ondoko basoetan bizi dira. Ez dute ura lortzeko modurik eta kalean norbait botila batekin ikusiz gero, zurrutada eskatzen diote.

Janaria eskatu egiten dute. Zakarrontzietan bila ere aritzen dira. Ezin dira

dutxatu eta, soinean daramaten arropa besterik ez dutenez, Harragaren txostenaren arabera askok infekzioak dituzte azalean: arriskutsuak izan ez arren, oso desatseginak izan daitezke. Neguan arazook gora egin ohi dute, arropa busitzen zaienean ez daukatelako lehortzeko erarik.

AGINTARIEN ERANTZUNA

Juan Jose Imbroda Melillako PPko alkate-presidenteak aurreko otsailean eskatu zion herritarrei ez emateko janariarik ezta mantarik ere kalean bizi diren umeei, zentrori itzul zitezten. Hala ere, onartu zuen zentroa gainezka zegoela.

Daniel Venturak, umeen ardura duen Melillako Ongizate sailburuak, uko egin zion 17 urteko Soufianen gurasoekin batzartzeari. Itsasontzi batean sartzen saiatzen ari zela kamioi batetik jausi zen eta hanka moztu behar izan zioten. Egun gutxi batzuetara hil egin zen. «Bere familiak jakin bazuen Melillan bizi zela, bere bila lehenago etortzea bazuen», esan zuen Venturak. Gainera, «drogazale» ere deitu zion gazteari. Oposizioak kargua uztea exijitu zion Venturari.

DROGA MENPEKOTASUNA

Palazonek onartu du umeetako askok kola esnifatzen dutela: «Sailburuak ulertzen ez duena da kalean bizi den ume batek kola esnifatzen duela hotza, gosea eta ondokoan arbuioa hobeto jasateko. Edonola ere, biktimak dira. Are gehiago, adingabeak dira eta babestuta egon beharko lirarteke. Kalean bizitzearen ondorio da kola esnifatzea».

Harragaren txostenak kola bi euroren truke erosten dutela dio. Plastikozko poltsa batera bota eta elkarri pasatzen diote, aurpegia bertan sartuta inhalatzeko. Abdelek adingabeen arteko sexu-abusu kasuak ere aipatzen ditu, tartean bortxaketak: «Kola esnifatzea oso arriskutsua da. Esnifatu ondoren batzuen jokabidea guztiz aldatzen da. Dena aldatzen da...». Palazonek horrelako egoerak gertatzen direla onartu du. Hori bai, ekintzaileak nabarmendu du hori umeak kaletik ateratzeko arrazoi bat gehiago besterik ez dela.



EKUADOR

Galapagoetako lehorreko iguanak irla batetik bestera eramaten ari dira

📁 INGURUMENA / France-Presse

Galapagoetako Parke Nazionalak joan den asteartean jakinarazi zuen Venecia izeneko uhartetxoan bizi ziren lehorreko sei iguana (*conolophus subcristatus*) bertatik atera eta beste uharte batera eraman behar izan dituztela, gosez hiltzeko arrisku bizia baitzuten.

Endemikoa da lehorreko iguana Galapagoetan, hau da, beste inon ez da hazten edo biziitzen. Veneciatik Santa Cruz uharteko Cerro Dragonera eraman dituzte animalioak, lehenetik ere lehorreko iguana ugari hartzen dituen puntura alegia. Bisitariak flamenko asko ere ikusiko ditu bertan.

Munduko leku erakargarrien artean kokatu behar dira Ozeano Bareko uharteak. Bertan gauza guzti-guztiek dute harmonia berezi bat, gizarte modernoak ezartzen duen konplexutasunik gabeak... ipuin batetik ateratakoak izango balira bezala. Galapagoetako uren urdin turkesa kolorea, hondar zuria, etxetxo harrigarrak, edonor liluratzeko moduko lekuak eta eguraldia... animalien munduarekin era orekatuagoan bizitzea posible dela frogatzen duen esperientzia, finean.

«Euri gutxi egin du eta jada ez dago nahiko janaririk Venecia irlatxoan dauden iguana guztientzat», esplikatu du Galapagoetako Parke Nazionalak agiri baten bitartez. Horregatik eraman zituzten Santa Cruz uharteko eremu jakin horretara iguanak. «Animalion biziraupena bermatzeko xedarekin egin dugu tokialdatzea», erantsi dute idatzian.

«Iguana horia» ere esaten diote espezie horri, azalaren

Euri gutxi egin du azken bolada honetan eta dagoeneko ez dago nahiko janaririk Venecia irlatxoan dauden iguana guztientzat. Galapagoetako Parke Nazionalak animalia horietako batzuk Santa Cruz uharteko Cerro Dragonera eraman ditu, beste ehunen bat aldiz egin izan duen moduan, espezieari eusteko asmoarekin.



Endemikoa da lehorreko iguana Galapagoetan.
Rodrigo BUENDIA | AFP



koloreagatik. Lehorreko iguanak Cerro Dragonekoak dira berez, baina 1970eko hamarkadan banaka batzuk Venecia uhartetxora eraman zituzten, «beren bizitza arriskuan ipintzen zituzten zakur basatienetik babesteko», Parke Nazionalak jakinarazi duenez.

Handik hogeit urtera iguanen lekualdatzeekin hastea erabaki zuen Parke Nazionalak eta jada ehunen bat aldiz egin dituzte, batez ere lehorte garaietan. Iguanek janaria izatea bermatzea izaten da helburua kasu guztietan. Aldi berean, artxipelagora ekarritako espezie harrapakarien populazioa kontrolpean edukitzen saiatzen dira, bertako ekosistema hauskorarentzat arriskutsuak izaten baitira.

ITSAS ERRESERBA

Galapago uharteak Ekuadorreko itsasertzetik 1.050 kilometrorra daude. Ekuadorreko probintzia bat osatzen dute eta Puerto Baquerizo Moreno da hiriburua. Artxipelagoak 13 sumendi-uharte nagusi ditu, beste 6 uharte txikiago eta 100 uhartetxotik gora, guztiak Ekuatoretik gertu.

Galapago uharteak Charles Darwin naturalista eta biologoaren ikerketei esker egin ziren mundu osoan ezagun. Bertan egindako ikerketei esker, zientzialariak hautespen naturalaren bidezko eboluzioaren teoria sortu zuen.

Beste inon aurkituko ez ditugun espezieak izaten dira Galapagoetan. Horregatik orain 32 urte, 1986an, artxipelagoaren inguruko itsasoa Itsas Erreserba bihurtu zen. Lehenago, 1978an, Nazio Batuek gizateriaren ondare izendatu zituen uharteak, eta 2001ean inguruko itsasora hedatu zuen titulua.

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Erdogan presidentearen
Turkia berria ez da adarra
jotzen ibiltzeko herrialdea

 **KULTURA** / Miguel Fernandez Ibañez


Erdogani ez zaio batere gustatzen parodia politikoa. Seguru asko, munduko inongo agintariri ez zaio gustatuko. Umoristek, beren lana egiteko adierazpen askatasuna errespetatzea besterik behar ez duten horiek, AKP alderdiari mesede egiteko joera duen Justizia Administrazioarekin egiten dute topo gaur egungo Turkian.

Girgir” izeneko aldizkari satirikoak bere argitalpen polemikoenetako bati “Moisesek Itsaso Gorria zatitu eta juduak erreskatatu egin zituzten” izenburua ipini zion. Bineta hartan protagonistak honakoa esaten zuen: «Bide osoa eman du buruko mina eragiten, minutu bat ere ez du isilik. Horrenbesteko boterea baduzu, itsasoa zatitu beharrean, soldaduei aurre egin behar zenien. Beno, edonola ere, elkarrizketa horri ez diot hasierarik emango».

Txantxa hori argitaratu bezain pronto sare sozialak kritikaz bete ziren. Juduak eta musulmanak bat zetozen: gustu txarreko txantxa zela zioten. Fiskaltzak, berriz, berehala erantzun zuen: ikerketa bat jarri zuen abian, “Girgir” aldizkariari «balore erlijiosoak iraintzea» leporatzeko. Handik egun batzuetara, 2017ko otsailaren 17an, “Sozcu” egunkariak jakinarazi zuen bere astekari satirikoa ixtea erabaki zuela, eta bineta horren egilea auzipetu egingo zutela. Era horretan, Erdoganen Turkian zentsura eta autozentsura berriz irabazle.

«Ez nuke esango txantxa hori horrenbesteko izan zenik, baina erlijioa oso kontuz hartzeko gaia da. Honela laburtuko nuke egungo egoera: ezin dugu egin garai batean egiten genuen

Anatoliako umore aldizkarien historia errebasatzen duen liburuaren azala.
GAUR8



umorea bezain ausarta. Baina egungo testuingurua ez da Turkiako umorearen gainbehera esplikatzeko duen arrazoi bakarra. Nik erantsiko nuke aldizkariak beren burua berritzen ez dutela jakin», adierazi du Levent Gönenc Anatoliako umore aldizkarien historia errebasatzen duen liburuaren egileetako batek.

KAZETARIAK KARTZELAN

«‘Girgir’ aldizkaria arrazoi politikoengatik itxi zuten. Txantxa tuntun bat baino ez zen arazoa, baina txantxa finean. Orain hamabost urte ez zuketan hain zorrotz hartuko eta aldizkariak arazo handirik gabe egingo zukeen aurrera. Baina orain begibistako arrazoiak ditugu zuhurragoak izateko: inoiz baino kazetari gehiago ditugu kartzelan», nabarmendu du Senol Bezci karikaturagile eta Ankara-ko Unibertsitateko Literatura irakasleak.

Datuek arrazoia ematen diote: 2016ko estatu kolpe saiakera egin zenetik, Erdoganen Exekutiboak 150 hedabidetik gora itxi ditu eta 100 kazetaritik gora atxilotu. Gainera, ahots kritikoen zaintza areagotzeko, Interneten zabaltzen diren edukien inguruko lege bat onartu du.

Tentsio giro horretan, kultura ez da salbuespena AKP alderdiaren baloreak omen diren horien aurka eginez gero. Horrela, iaz Turkiako hiri handietako agintariak “Sadece Diktator” (Diktadore besterik ez) izenburuko antzezlan debekatu egin zuten. Eta “Penguin” aldizkari satirikoak bere jardura eten egin behar izan zuen arazo ekonomikoak medio, Justizia Administrazioaren presioak jasaten urteak egin ondoren, epailek erabakitzen baitute zeintzuk diren zeharkatu ezin diren marra gorriak. Erdogan presidentearen irizpideekin bat ez duten ahots kritikak zaintzeko

zer egin behar den erabakitzen dutenak ere badira.

Turkiako umore tradizioa oso zabala da. Kemal Sunal zenaren pelikulek grazia handiz aurkeztzen zituzten anatoliarren eguneroko gatazkatzok. Telebistan, berriz, Levent Kirca zenak politikarien eta gizartearen inguruko parodiak egiten zituen “Olacak O Kadar” saioan. Eta hedabideetan ere, karikaturagileak izar moduan hartzen zituzten.

Hala ere, Gonencen iritziz, «politikariak intoleranteak dira txantxekin», eta hori mundu osoan gertatzen da. Adibide bat eskaini digu: Turgut Ozal agintari ohiak auzipetu egin zituen karikaturagileak 1980ko hamarkadan. Garaien arteko aldea, ordea, Justizia Administrazioak markatzen du: «Garaiazen araber, tolerantia ala intolerantia dena Justizia bera da. Legearen interpretazioaren arabera dena aldatzen da. 1950eko hamarkadan Adnan Menderes lehen ministroari buruzko karikatura ugari zegoen eta berak ezin zituen jasan. Gorrotatzen zituen. Baina politikaria epaileengana joanez gero, egoera ezberdina zen. Umorista guztiak dira zigortzeko modukoak legea erarik zorrotzenez irakurriz gero».

AKPk hartzen dituen neurriak, erlijioaren eraginez ala Erdoganaren autoritarismoarengatik hartzen ditu? Hobeto ulertzeko adibide bat eskaintzen du Bezci: Turgut Ozal lehen ministro ohi kontserbadore neoliberalaren beraren ildo politikoa tankerakoa zuen. Karikaturagileak auzipetu zituen 1980ko hamarkadan. Hala ere, editoreek orduan zuten ausardia azalduz, berri batean honakoa argitaratu zen: «Ozalek azken gin-tonica hartu du Ramadana hastera doalako». Gaur tankerako izenburu bat argitara ematea pentsaezina da.



Erdogan presidentearen jarraitzaile bat bere buruari argazki bat egiten, agintariak Bosniako hiriburuan maiatzaren eskaini zuen hitzaldi batean.
Oliver BUNIC | AFP

«Egun erlijioaren aterkia askoz zabalagoa da. Erlijioek ez dute kritikarik onartzen, berez dogmatikoak baitira. Agintea onartzen da Turkian, baina ez gaude eztabaidetara irekita. Europar ideiak kinkan ipintzeko tradizioa dute, baina gu oraindik ez gara fase horretara iritsi».

UMOREAREN MUGAK

Islama izaki bizidunen irudiak erreproduzitzearen aurkakoa da. Horrek eragina izan du otomandarren artean, XIX. mendeko azken urteak iritsi arte zera-mika eta kaligrafia baino ez baitzituzten garatu. Garai berriekin musulmanen arteko eztabaidak iritsi dira. Salbuespenak salbuespen, musulmanek ez dute inongo arazorik irudiak eginez etekinak irabazteko. Zigarro bat erretzearen parekoa da, nahiz eta berez debekatuta dagoen. Edo kaltegarria den.

Non daude umorearen mugak? «Pertsona ezagunenean kritikaren erdian bizitzen ikasi behar dute. Ezin da immunitaterik onartu, ezta Atatürken kasuan

ere», esan du Bezci, Turkia modernoaren sortu zuen militarra gogora ekarriz: «Ataturk tabu bat da. Arraroa. Aldi berean, presidentea iraintzeagatik zigortutako pertsonak eta Ataturk babes-ten duen legea dauzkagu. Lege horrek ez du inolako zentzurik».

Errepublikan karikaturagileei garai txarrak pasatzea tokatu zaie. Hasiera batean Ataturk kritikatzeko modu adimentsuak aurkitu zituzten, mezua ezkutatuta. 1950eko hamarkadan irekitasun politikoa iritsiko zen; hauteskundeak eta ahots kritikoak. 1972an sortu zen “Girgir” aldizkaria. 1980an Kenan Evrenen estatu kolpea antolatu zuen arte, garai onak bizi izan zituen, astean 500.000 ale salduta. Kolpeak hain politikoa ez zen aldizkaria aldatu egingo zuen. «Oguz Aral editorea erregimenaren aurka zerbait egin behar zelakoan zegoen», azaldu du Gonencek. 1993an arrazoi ekonomikoek itxi zuten aldizkaria. Handik 15 urtera beste editore batek zabaltu zuen berriz, eta, 2015ean, “Sozcu”-k hartu zuen aldizkaria banatzeko ardura.

Orain 40 urte inguru bizi izan zuten aro oparoena umoristek, eskaintza kulturala oso eskasa zenean. «Orduan erraza zen txantxa bat egitea. Ez zegoen Internetik. Herritarrek liburuak irakurtzen zituzten, telebista saio berak ikusten zituzten denek. Orain karikatura bat ikusi eta baliteke ‘Tronuen Jokoa’ ikusi ez dudalako ez ulertzea!», nabarmendu du Bezci.

MASAILEKOA TRUMPI

Internetek giro hori bera alda dezake. Istanbul hiriko Geziko protesten garaian, esaterako, sare sozialen bitartez salatzeke moduko gauza guztiak salatu zituzten. Herritarren komunikazioarako kanal berria menderatzea oso zaila da. Adibide bat: Erdogan munduko agintari nagusiei masailekoa ematen ageri da bineta batean, turkiarrak Trumpi masaileko bat emango ziola mehatxu egin ondoren. Txantxa bat zen. Inork ez zuen serio hartu. Ezta Trumpek ere. Behingoz, Erdoganek berak ere ez zuen serio hartu.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Fisioterapia kirol proba herrikoietan

Gaur egunean presaka bizi gara, eta kafearen iragarki hark zioena ederki betetzen dugu: «Har ezazu kafea! Tontakeria gehiago egin ahal izango dituzu denbora gutxiagoan». Iragarkia, bistan da, ez da benetakoa, baina parodiak gure gizartearen gurpil zoroa ederki irudikatzen du. Kirol herrikoien mundura ere aplika daiteke: gero eta lasterketa gehiago antolatzen dira, adibidez, behin eta berriro harri berarekin estropezu eginez. Eta dena, momentu batez gelditu eta gauzak patxadaz aztertze-ko denbora ez hartzeagatik. Kirolariei ematen zaien osasun asistentziari buruz ari naiz, jakina.

Fisioterapeutok askotan jasotzen ditugu kirol proba herrikoietan parte hartzeko gonbidapenak, eskuarki elkargo profesionalen bitartez. Eskaintzok probaren amaieran kirolariak artatzeko izaten dira, gehienetan musu truk, baina baita batzuetan ordainduta ere. Baina fisioterapeuta gutxi erantzuten diote eskariari, eta, azkenean, askotan hutsune hori prestakuntza egokirik gabeko lagunek betetzen dute, kirolarien osasunaren kaltetan. Batek esan dezake: «Fisioterapeutek kolaboratzen ez dutelako ezartzen ditugu masajistak. Gero ez daitezela intrusismo kontuengatik kexatu!».

Egon pixka batean, mesedez. Hartu arazoa aztertze-ko denbora, hurrengo proba antolatzen buru belarri sartu baino lehen. Zer gertatzen da? Zergatik uko egiten diote fisioterapeutek zuen kirol probetan kolaboratzeari? Edo zehatzago esanda: baietz esan duten fisioterapeuta gazte gogotsuek,

esperientziatik pasa ostean, zergatik esaten dute 'ni ez nator berriz hona'? Hor dago koska.

Kontua da, horrelako probetan fisioterapeutari proposatzen zaion lana, azkenean, kirolari guztiei masajeak ematera mugatzen dela. Premiarik izan edo ez izan, lesioarekin edo gabe, kirolari guztiei bereizketarik gabe igurtzi estandarrak egitea, asto lan neketsua eta eraginkortasun gutxikoa. Zer pentsatuko luke arkitekto batek, denbora guztian porlan-zakuak bizkarrean garraiatzera behartuko bage-nu? Denok dakigu arkitekturan porlana behar dela, baina berak ez du horretarako bakarrik ikasi. Masajeak ematea ere bada fisioterapeuten lana, bistan da, baina guk egin dezakegun ekarpena hori baino askoz ere handiagoa da.

Adibidez: kirolaria aztertuz, ez lesionatzeko aholkuak ematea; mina duenean, mina kentzeko zer egin behar duen azaltzea; lasterketan min hartzen duenean, lesioa txikitze-ko eta sendabidean jartzeko hainbat errekurso eskaintzea; eta kirolaria aztertu eta gero, etorkizunean kirola osasuntsuki praktikatzeko gakoak ere ematea. Aldiz, horrelako probetan inolako irizpiderik gabe ogi oreka egiteko makinak bezala erabiltzen gaituztenean, fisioterapeutak gaizki tratatuak sentitzen gara, aintzat hartzen ez gaituztela sentitzen dugu. Eta, jakina, parte hartzeko gogoia joaten zaigu.

Arazoaren atzean, noski, ez dago asmo txarrik; antolatzailerik, segur aski, parte hartzaileei asistentzia onena eman nahian ari dira. Baina fisioterapiari buruz dagoen ez-

jakintasuna oraindik handia da, eta inork ez badie azaltzen zer egin dezakegun, kirolarien osasun asistentziak eskasa izaten jarraituko du. Soluzioa, bistan da, aldi berean fisioterapeuta eta kirolari diren aldetik etor daiteke. Leku batzuetan hasiak dira jada #FisioRunner izenekoak martxan: parte hartzaileekin batera lasterka doazen profesionalak, unean uneko premiei aholkuak eta erantzunak emateko gai direnak. Horixe da bidea. Kontuan izan ezazue etorkizunean. •



Kirol proba herrikoietan fisioterapeutaren lana kirolari guztiei masajea ematera mugatzen da. Lander F. ARROYABE | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Hauteskunde aldia hementxe da

Espainiako Kongresuan gertatutakoa gora-behera (GAUR8ko zenbaki hau itxi aurretik oraindik ez zegoen ebazpenik), azken egunotako gertaerek hauteskunde garaia badatorrela adierazten digute. Hautetson-tziak gainean ditugula, alegia. Beharbada, Pedro Sanchez izango da gaur Espainiako presidentea, Mariano Rajoyk bozketaren aurretik dimittitu ez badu. Edozein kasutan, PP oso ukitua iritsi zen Kongresura. Presidente berria izan edo aurrekoak funtzio-tako jarraitu, Gobernuak ez du denbora luzez iraungo. Legealdia bukatzeko Rajoyk adierazitako asmoa ames-keria hutsa zen, PPko burua edozer gertatuta ere bere horretan segitzeko kapaza izan arren. Rajoyk dimittitu zezakeela zabaldu zen Kongresuko saioaren aurreko orduetan. Hedabideek argi-taratu zuten presidenteak mugimendu hori egin ze-zakeela zentsura mozioa indargabetu eta hautes-kundeetara Gobernutik jo-ateko. PPk eta Gobernuak ukatu egin zuten aukera hori. EAJk zentsura mozioa babestuko zuela jakiteak espekulazioa piztu zuen berriro. Rajoy ez da sorpre-sa zalea, baina egoera ere erabat ezohikoa zen.

Datorren urterako udal eta foru hauteskundeak dau-de aurreikusita. Hego Euskal Herrian oso hitzordu ga-rrantzitsua, ikuspuntu ezberdinetatik begiratuta. Esta-tuan hauteskunde orokorrak izateko aukerak beste faktore bat gehiago jartzen du mahai gainean, Estatu mailako indarren arteko polarizazioa ekarri ohi baitu-te normalean. Euskal herritarrek Espainiatik inoiz bai-no urrunago daudela entzun dugu azken garaiotan, baina polarizazio horrek izan dezake eraginik hautes-leen jokabidean, beste askotan izan duen bezala.

Edonola ere, Euskal Herrian badira interes gu-ne batzuk hauteskunde ziklo honetan barrena argitu beha-rrekoak. Hauteskunde garai berri bat abiatu da urte ba-tzuetako –gutxi, egia esan– tarte baten ostetik, eta

garai horrek ziklo politiko berri bat indartzeko balioko ote duen da galdera nagusietako bat. Hau da, izan badi-ren baldintzak baliatzeko eta egon badiren oztopo zein zailtasunak gainditzeko balioko ote duen.

Baldintzei dagokionez, besteak beste, ETaren azken erabakia, estatus politikoaren eztabaida piztu izana eta Estatuko krisia –eta Estatu mailako indarrek Eus-kal Herrian duten pisu eskasa– izan daitezke lozorro-an dagoen prozesu politikoaren oinarriak, hori dena bozekin berresten bada. Egoera orotan izan dira bo-zak garrantzitsuak, estrategia edozein zela ere. Nego-ziazio estrategiak indartzeko, batzuetan; errepresioa-ren eta ilegalizazioen erasoaldiei aurre egiteko beste batzuetan; estrategia aldaketa sakonak berresteko noizbait... Oraingoan ere garrantzitsuak izango dira,

Hauteskunde garai berri bat abiatu da urte batzuetako –gutxi, egia esan– tarte baten ostetik, eta garai horrek ziklo politiko berri bat indartzeko balioko ote duen da galdera

beharbada inoiz baino gehiago, Euskal Herria ziklo historiko berri batean kokatzeko elikagai nagusieta-ko bat izango baitira, are gehiago borroka armatua desagertu ostean.

Esan bezala, erronkak bi alde ditu. Aukerena eta arriskuena. Eta baldintza objektiboak izan badauden bezala, arazoak ere ez dira makalak. Lehenik eta behin, Estatuaren izaera bera, jasangaitza baitzaio Euskal He-rria eta bere eskubideak onartzea. Beste arazo bat ustez Euskal Herriaren burujabetza prozesu baten alde be-harko luketen baina, egiazko erabakietan, Estatuaren «egonkortasuna» bermatzen dutenen jokabidea da. Azken boladan, Gurtel auziko sententziak eta zentsura mozioak dena hankaz gora jarri arte, EAJk PPri eman-dako babesa ezin adierazgarriagoa izan da. •

«LINGUA NAVARRORUM»

Euskararen «inposizioa» salatzeke deiak euskararen aldeko manifestua piztu du

📁 EUSKARA / Amagoia Mujika Telleria

Gaur, ekainak 2, manifestazioa deituta dago Iruñean. Asociación Cultural Double 12, Vecinos de Paz de Berriozar eta Desolvidar elkarteek eta Pepe Alfaro idazleak egin dute deialdia eta hainbat alderdi politikok, sindikatuk eta bestelako eragilek bat egin dute; Nafarroako Gazte Sozialistak, UPN, PPN, PSN, Ciudadanos eta UGT sindikatua, besteren artean.

“Por el futuro de todos en igualdad. Berdintasunezko etorkizun baten alde” leloaz jantzi dute deialdia eta euskara ez dakitenek Nafarroan sufritzen omen duten «diskriminazio egoera» salatzea da deitzaileen helburua. «Hizkuntza politika bidezkoa» defendatzea, antolatzaileen hitzetan.

Deialdi horren parean, Nabarralde “Euskararen defentsarako manifestua” kaleratu du duela egun batzuk eta, egun gutxiren buruan, 13.300 atxikimendutik gora jaso ditu. Nabarralde Fundazioko lehendakari Angel Rekalderen hitzetan, «euskararen kontra horrelako ekintza bat aurrera eramatea astakeria hutsa da. Baina, haratago joanda, konturatzeko gara Nafarroan testuinguru jakina bizi dugula eta hauteskundeak badatozela. ‘Al-daketa’ delakoaren kontrako ekintza politikoa da manifestazioa, erabat hauteskundeen atariko. Hori ez genuke ahaztu behar. Hauteskundeak ate joka ari dira eta alderdiak dagoeneko dinamika horretan sartuak daude. Hala ere, joko politiko zikin horretan euskara erabiltzea –duen balio guttiarekin– onartezina da. Onartezina da euskararen kontra

egitea eta nazkagarria da euskara joko politiko zikin horretarako erabiltzea. Zaila da oso kontua hotzean aztertzea, haserretu gabe».

Haserre horretatik sortu zen duela egun batzuk Nabarraldeko publiko egindako “Euskararen defentsarako manifes-

Beheko irudian, 2017ko abenduan Kontseiluak Iruñean deitutako manifestazioa. Hezkuntza zerrenda bakarraren aldeko aldarria eraman zen orduan kalera. Iñigo URIZ | FOKU

tua”. «Gure webgunean jarri genuen, 20-30 izen sonatuen babesarekin. Gure asmoa zen 100-200 lagun babsa lortzea. Lehen ordu erdian dagoeneko 100 lagun babsa lortu genuen eta, iluntzerako, 2.000 lagunena. 24 orduren buruan 5.000 lagun babsa

zuen manifestuak, eta, 48 ordutan, 10.000 lagunena. Guretzako sekulakoa izan da gu bezala pentsatzen duen jende asko dagoela ikustea. Eta oso interesgarria da babesa eman dutenen artean zein dauden ikustea; alor oso desberdinetako jendeak egin du bat Euskal Herri osoan. Eta tartean izen oso sonatuak daude. Pozik gaude manifestuak izan duen oihartzunarekin».

EUSKARA INPOSATUA?

Poz horren tamainakoa da, baina, aipatu manifestazioa deitzeko erabili diren argudioek Euskal Herri osoan piztu duten haserrea.

Nabarmenezko datua da orain hizkuntza politikaren kontrako manifestazioa deitu duten eragile berek Nafarroa-



ko banderaren aldeko eta aldatetaren kontrako manifestazioa deitu zutela 2017ko ekainean.

Historikoki euskarak Nafarroan egoera ahula bizi izan du eta bizi du oraindik ere. Manifestazioa deitu dutenen hitzetan, egungo Nafarroako Gobernuak sustatzen duen hizkuntza politikak ez ditu gaztelaniadunen eskubideak bermatzen. «Ez dugu onartuko nagusiki gaztelaniaduna den gizarte zabal eta demokratiko batean euskara lanerako baimen bat edota laguntza publikoak eskuratzeko derrigorrezko betebeharrak izatea».

Deitzaileen hitzetatik ulertu daiteke historikoki zapalduak izan diren euskaldunen eskubideak gaztelaniadunen eskubideen gainetik daudela orain.

«Baita zera ere! Nafarroan euskararen kontrako presioa sekulakoa da eta mende luzeetako gainera. Hori ez duzu egun batetik bestera aldatzen. Horregatik are larriagoa iruditzen zaigu kontua. Ez dago arrazoi objektiborik gaztelaniadunen eskubideak zapalduak izaten ari direla esateko. Manifestazioa deitu dutenak oso eremu mingarrian sartu dira, euskara ahula delako eta ez delako halako aldatetarik gertatu. Bost mendetako politika bati ezin zaio lau urtean buelta eman. Ez dago justifikaziorik», iritzi dio Rekaldek.

ELEMENTU IDENTITARIOAK ASTINDU

Angel Rekaldek garbi dauka manifestazioa antolatu dutenen helburua: «Elementu identitarioak astindu eta sen-

Orain «euskaren inposizioaren kontrako» manifestazioa deitu duten eragileek joan den urteko ekainean Nafarroako banderaren aldeko eta aldatetaren kontrako deia egin zuten. Irudian, orduan egindako manifestazioa. Jagoba MANTEROLA | FOKU

timendu espainola elikatu nahi dute. Ez hainbeste hemen bertako jendeari begira, kanpoko jendea ekartzeko baizik».

Euskara, bistan denez, elementu identitarioa da, hizkuntza bat den neurrian. Nabarraldeko lehendakariak Antonio de Nebrija (1441-1522) gramatikalari espainolak esandakoak ekarri ditu gogora: «*Siempre la lengua fue compañera del imperio*».

Nebrijak oso garbi zuen inperioa eta hizkuntza elkarrekin hazi eta loratzen direla, eta, bat eroriz gero, biak erortzen direla. Bide beretik, Nebrijaren ustez «barbaroak diren eta hizkuntza arraroak» dituzten herriak inperioaren uztarriaren mende jartzeko «ezinbesteko» baldintza da herri horiei hizkuntza nagusia

inposatzea, «garaituak garaileen aginduak bete ditzan». Gramatikalari eta pentsalari espainolak garbi zuen: «Hizkuntzak eta nazioak bat egiten dutenean, hizkuntza inperioaren tresna bihurtzen da».

EUSKARAK ONARPEN ZABALA

Manifestazioaren deitzaileen arabera, Nafarroako Gobernuak «euskara inposatu» egiten du eta euskaraz ez dakiena diskriminatu. «Hori propagandaren oinarrietako bat da, ezta? Erabili etsaiaren kontra hark zure kontra erabiltzen duen argudioa. Zalantzarik gabe, Nafarroan inposatu dena gaztelania da eta derrigorrez ikasi behar dena gaztelania da. Euskarari hori leporatzea ziz-nismo itzela iruditzen zait».

Euskararen inposizioa salatzeko dutenek iradokitzen duten zatiketa benetakoa al da? Nafarroako jendartearen hizkuntzen arteko gatazka batean sartuta al dago? «Inondik inora. Alderantziz. Jendearren artean onarpena dago, espektro osoan gainera. Euskarak onarpen zabala dauka eta jendarteak normaltasun osoz bizi du. Gatazka hori, konfrontazio hori, diskurtso politikoan baino ez dago», esan du Rekaldek.

«Muinean diskurtso identitarioa dago. Gobernuak eta agintariek hauspotzen dituzte diskurtso horiek, herritarren babesa lortzeko. Gizartea, baina, gero eta globalizatuagoa da eta gero eta anitzagoa. Diskurtso identitario horien atzean demagogia itzela dago. Erabiltzen diren argudioak ez dira benetakoak eta intentzio politiko garbia dute».

Nafarroako Gobernuak ere argi mintzatu da gaurko deituta dagoen manifestazioaren inguruan. «Ondo dago herritarrek kalera ateratzea aldarrika-



tzera, baina, normalean, esku-bideen alde izaten da, ez esku-bideen kontra», adierazi zuen Maria Solana bozeramaileak. «Nafarroan denok gara gaztelaniadunak, baita euskaldunak ere. Beraz, diskriminazioaren eztabaidak ez dauka zentzurik. Herritarrek garbi ikusiko dute beren eskubide zibil guztiak ukitu gabe dituztela».

URTE ASKOTAKO LANA

Nabarralde Fundazioak urte asko daramatza memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ezagutzeko ahaleaginean. «Urte mordoa daramagu lanean gure kulturaren eta hizkuntzaren alde. Ondo dakigu zenbat kostatzen den lan hori egitea, zein garrantzitsua den benetako argudioak, pisuzkoak eta oinarria dutenak, lantzea. Baina, berriz, komunikabide indartsuak ondoan daukazunean, oso erraza da ideia sinple bat hartu eta zabaltzea. Alegia, guk urte askoan euskararen alde egindako lana hankaz gora jar dezake komunikabide ozen



Euskararen aldeko mobilizazioak etengabeak izan dira Nafarroan azken hamarkadotan.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

batek zabaldutako demagogia merkeak. Urtetako lana pikutara joan daiteke horrelako kanpaina faltsuen eta bortitzen aurrean».

Hala ere, Nabarraldeko lehendakariak garbi dauka lanean segituko dutela. «Euskaldunok egunerokoan euskararen erabilera normalizatu behar dugu. Horrez gain, politizatu gabe baina euskara politikan sartu behar da. Normaltasun osoz onartu behar da euskarak erakunde guztietan eta bizitzako alor guztietan bere tokia behar duela. Ezin dena da politika merkea egin euskararen kontura. Hori mingarria da», bukatu du Nabarralde fundazioko lehendakariak.

EUSKARAREN DEFENTSARAKO MANIFESTUA

Giza Eskubideen Europako Hitzarmena errespetatzeko printzipioarekin bat egiten dugu, hizkuntza hautuaren arabera bazterketa debekatzen duena. Inor ez litzateke *lingua navarrorum*-a erabiltzeagatik baztertuta sentitu beharko. Gure nortasunaren oinarritzko zeinua da eta, hau gabe, Nafarroako errelatoa hutsala litzateke, beste interesen mende geratuz.

Euskara izan da, mendez mende, jazarpena jasan behar izan duena, izan azalekoa edo isilpekoa. Jendartearen agerian gelditu den errepresioa, edo nabarmenak ez izanagatik ere emaitza bera bilatzen

zituzten erasoak. Gure hizkuntza ezabatzeko saiakerak hamaika izan diren arren, hizlarien borondatez eta indarrez XXI. mendera bizirik iritsi da.

Gaztelera zein frantsesarekiko fobiarik ez dugu sentitzen. Gure kulturaren osagarri direla sinisten dugu, are gehiago, euskaldun guztiek dakigu gaztelera edo frantsesa, eta askok, hiru hizkuntza edo gehiago. Ez genuke onartuko, hartara, edozein hizkuntza lege, lan arlo edo jendartearen bazterketaren biktima izatea.

Administrazioan –erakunde publikoak protestaren hartzaile diren neurrian– euskara hitz egin,

ikasi edo erabiltzea sustatuko duten edozein politika edo neurriekin bat egin dugu eta egingo dugu, errespetu osoz eta euskaldunen eta euskara ezagutzen ez duten horien arteko begikotasunez. Argi eta garbi esanez, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak horretaz hitz egiten duela, eskubideez, hizkuntzaren erabilera eta ezagutza babestez. Denok daukagu gure herriko hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta inork ezin digu ukatu.

Laburbilduz, jarrera hipokrita iruditzen zaigu, asmo txarreko pertsona eta elkarteek, gure herrialdeko hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko neurrien

kontrako manifestaldi bat deitzea, historikoki euskararen garapen naturalaren kontrako debeku eta trabak jartzen aritu diren bitartean.

Herritar guztiak, erakundeak eta edonolako elkarte eta taldeak euskararen ikasketa eta erabileraren alde jartzera deitzen ditugu, etorkizuneko belaunaldiak jendarte bidezko eta anitzago batean bizi ahal izan daitezen.

Nafarroako euskararen sustapen eta erabileraren kontrako manifestaldiaren antolatzaile eta sustatzaileei, deialdia bertan behera uzteko eskatzen diegu, defendatzen dituztela dioten eskubide horien kontra doan heinean.



EXPRAI

iRRITZIA:



ARRABIO ARRUNTA, BASOAREN ETA ISTORIO ZAHARREN BABESEAN

Iñaki Sanz-Azkue

Orbel artean doa, basopean. Mantso baina ziurtasunez mugitu ditu oinak; eta aurrera doa, pixkanaka. Lurreko landare eta hostoen artean, ez da asko aldenduko erreka inguruak ematen dion hezetasunetik. Ez du presa handirik arrabioak. Ez dirudi, behintzat. Bere bizkarraldeko marra hori-beltzek ziurtasuna ematen diote. Arrabioak ez du lasterka egin beharrik; ez du hortz zorrotzen ezta atzapar beldurgarrien falta sumatzen. Nahikoa du daukan itxurarekin bere burua babesteko. Etsaiek pozoitsu tankera hartzen diote; gizakia ere ez da berarekin fio. Errespetua diote arrabioari. Koloreek, eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren istorioek sortzen duten errespetua.

Ez ukatu ederra ez denik. Telebistan ikusten diren dokumentaletako animalien itxura du, eta ezagutzen ez duenak ez du bertakotzat joko. Arrabio arrunta (*Salamandra salamandra*), ordea, izenak dioen bezala espezie arrunta da Euskal Herri hezean. Baso inguruan bizi denak edota perretxikozaleak segituan esango du: «Horia eta beltza. Mantso-mantso ibiltzen da, orbel artean, basopean. Hori da arrabioa». Izan ere, behin ikusita, zaila izaten da animalia hau ahaztea. Kolore bereziak ditu, biziak eta deigarriak. Ezberdina da.

Arrabio arrunta anfibioa da, isatsduna, eta, beraz, urodeloen taldekoa. Gainontzeko anfibio espezie guztiek bezala, azala bustia ez bada, hezea edukitzea komeni zaio. Euskal Herriko anfibioen artean, alabaina, bera izango da lehortarrena; bera da urarekiko behar gutxien duena. Hori dela eta, animalia berezi hau batez ere baso hezeetan aurkitzen da. Ugaltzeko errekaetoak erabiltzen ditu maiz, baina mendi-pistetako putzu-zuloetan ere aurki daitezke bere larbak edo kumeak, ur azpian bizi ahal izateko zakatz eta guzti. Ur-guneen faltan, baina, ez du amore emango, eta bere gorputza moldatuko du arrabio

kumeak sabelean denbora gehiagoz izan eta zuzenean uretik kanpo askatzeko. Garatuagoak jaioko dira. Zakatzik gabe, birikekin uretatik kanpo arnastu ahal izateko. Arrabioak ingurunearen arabera kume-aldia aldatzeko duen gaitasuna ikaragarria da.

Gure inguruan topa dezakegun arrabio azpiespeziea, *Salamandra salamandra fastuosa* izenekoa, udaberriko eta udazkeneko gau heze eta epeletan aurkituko dugu maiz. Basoaren babesean, koloreak ematen duen ziurtasunarekin, lasai, mantso ibiliko da orbel artean.

BASO HELDUTASUNAREN ADIERAZLEA

Egur azpietan gordeta, edota sustrai handien arteko zirrikituetan babestua topatuko dugu sarri. Basoaren heldutasunak, konplexutasunak eta egitura-ren aniztasunak ere izango du zeresana

na arrabioaren presentzian. Baso naturalak ditu gustuko landaketen aldean: arbola zaharrak zein jaioberriak, ustelak, hilik daudenak, eroriak edota zutik jarraitzen duten zuhaitzak, denak nahastuak dituzten basoak. Arrabioa baso natural helduek duten konplexutasun eder horretan ibiltzen da eroso, eta landaketetako tamaina bereko arbola eta basope soilduko guneetan deseroso.

Egur hilak erakarriko ditu bere elikagaia diren artropodoak, zomorro txikiak; era berean, ezkutatzeko eta babesteko tokia emango dio. Arrabio arrunta baso heldutasunaren adierazle ona da.

SUA, POZOIA ETA KONDAIRAK

Basoarekin eta egurrarekin duen lotura bistakoa da gizakiarentzat, eta erlazio horrek, belaunaldiz belaunaldi, kul-



Arrabio arrunta
(«*Salamandra
salamandra fastuosa*»).

Iñaki SANZ-AZKUE



tura ezberdinetan igaro diren istorioak eta kondairak sortu ditu. Kontakizun zaharrek diotenaren arabera, bertan zeudenen harridurarako, sutara botatako egurretatik ateratzen ikusi omen zituzten behin arrabioak, egurretik baino sutik atera izan balira bezala. Hori dela eta, sutan ez direla erretzen zabaldu izan da historian zehar. Ez da arraroa, beraz, kultura ezberdinetan arrabioa suari lotu izana eta horren ikur kontsideratzea. Bere ingelesezko izen arrunta ere hortik datorkio: *fire salamander* edo su-arrabioa.

Arrabioari loturiko kontakizunak, aldiz, ez dira kontu berria. Aristotelesek (384-322 K.a.) suari aurre egiteko zuen gaitasunari beste bat gehitu zion: suaren gainetik pasatzen zenean hura itzali zezakeela esaten zuena. Plinio Zaharra (23-79 K.o.) izan zen duen pozoia-ri buruz hitz egin zuen lehena, eta horren testuek inspiratuta edo, Sevillako Isidoro artzapezpikuak (600. urtearen inguruan) arrabioak fruta arbola pozoitu eta lehortzeko gaitasuna zuela adierazi zuen, bai eta ur edangarriko putzuak pozoitzekoa ere. Geroztik asko izan dira anfibio horri buruz mitologi-
gian kontatu direnak. Leonardo Da Vinciren (1452-1519) arabera, esaterako, arrabioak ez zuen digestio aparat-urik; sutik eskuratzen zuen jateko behar zuena.

Ezkerrean, arrabio arruntaren kumea ur azpian. Eskuinaldean, arrabioak sortzen duen substantzia toxiko narritagarria ikus daiteke, zuri koloreko likidoa, «salamandrina» izenekoak. Iñaki SANZ-AZKUE

Dituen kolore hori eta beltz deigarriek errespetua sortu izan dute gurean. Azken finean, hori da bere estrategia. Kolorazio aposematikoa du, hau da, gorputzeko kolore biziak erabiltzen ditu etsaiei pozoia duela ohartarazteko

Arrabioak substantzia toxiko narritagarria sortzen du, zuri koloreko likido bat. Bere toxikotasunak animalia txikienengan eragina izan badezake ere, neurriak hartuz gero, gizakiarentzat ez da kaltegarria

Hasiera batean kontakizun horiek arrabioaren indarra zabaltzeko erabili baziren ere, Elizak pixkanaka sua jaseteko zuen gaitasuna infernuarekin lotu zuen, arrabioaren fama onari amaiera eman ziolarik.

EUSKAL HERRIKO ISTORIO ZAHARRAK

Arrabioaren kontakizunak, baina, ez dira iraganeko kontua. Oraindik ere, eta asko urrutiratu gabe Euskal Herrian bertan, bada animalia berezi horri loturiko istorio zaharrak entzuteko aukerarik. Dituen kolore hori eta beltz deigarriek errespetua sortu izan dute gurean. Baina, azken finean, hori da bere estrategia, hori da arrabioak nahi duena. Kolorazio aposematikoa du, hau da, gorputzeko kolore biziak erabiltzen ditu etsaiei pozoia duela ohartarazteko, eta beraz, horiek beldurtze-

ko. Lehendabiziko hozkada saihestea komenigarria izaten baita.

Egia da arrabioak substantzia toxiko narritagarria sortzen duela. Buruan dituen guruinetatik eta bizkarreko pikorretatik askatzen du zuri koloreko likidoa (*salamandrina* izenekoak). Helburua, berriz, bere burua defendatzea da. Harrapakariek ahoan hartzen dutenean askatu ohi du, eta horiek, likidoaren zapore txarra sumatuta, segituan utzi ohi dute arrabioa bakean. Bere toxikotasunak animalia txikienengan eragina izan badezake ere, neurriak hartuz gero, gizakiarentzat ez da kaltegarria. Eskuetan izan ondoren horiek ahora edo begietara eramatea ekidin behar da, eta, batez ere, ez da komeni isurtzen duen substantzia irenstea. Hori dela eta, animalia dagoen lekuan bakean uztea izaten da onena.

Esan beharrik ez dago arrabioak ez duela sua jasateko botere berezirik; fruitu-arbolak pozoitzeko ahalmenik ere ez dauka, ezta horiek lehortzekoa ere, noski. Arrabioari loturiko esanak eta kondairak, ordea, oso zabalduak daude inguruan. Horietan belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho transmititu dira, eta bere pozoia izan dezakeen eraginarengatik inguruan hainbat mito sortu dira. Asturiasen, esaterako, arrabioak hozka egiten duela eta oso pozoia arri-

kutsua duela zabaldu izan da: “*Si te muerde una sacavera, nun y-da tiimpu al cura a encender una vela*”, dio esanak (David Alvarezen artikulu batetik ateratakoa). Hau da, “arrabioak hozka eginez gero, apaizari kandela pizteko denborarik ez dio emango”.

Kontatzen den guztia, alabaina, ez da beti arrabioaren kalterako izaten. Elena Fariñas galiziarrek (Brandin; Ourense) gogoan du euren herrian txikitak entzundakoa. Bertan arrabioa ur garbiren adierazletzat zuten. Arrabioa zegoen putzua ur onekoa zela esan ohi zen.

Euskal Herrian ere bildu dira. Arrabioaren pozoia buruzko istorio zaharrek aitona-amonetatik bilobetara igaro dira egun arte. Horiek entzun dituenak ez zaio asko gerturatuko anfibio horri, baina hitz egingo du arrabioaz. Kondairak berak magia puntua ematen baitio animalari, eta kontataileak arreta lortu.

ARRABIOAK BASOMUTILAK HIL ZITUENEOKA

Arrabioari loturiko kontakizunen artean bada bat berezia, Hernaniko Ereñotzu auzoko baserrietan bildu dena, eta oraindik ere jende askoren ahotan entzun daitekeena. Jarraian datorren komikia “Burbunak eta etsayak” proiektuaren barruan jasotako ipuin horretan oinarritzen da, eta herrian bertan basomutil batzuei gertaturiko pasadizoa kontatzen du. Ez da artikulu honen egilea izango gertatu zen ala ez, zenbat duen egiatik eta zenbat asmatutik epaitzen hasiko dena. Baina lasai esango dizue, lan kontuak direla eta, hamaika aldiz izan dituela arrabioak eskuan, eta ez duela surik, ez pozoirik, ez infernuri ezagutu (oraingoz!). Arrabioak barruan dituen eltzekada baba jateko aukerarik ez du izan oraindano, baina izango balu, bera, behintzat, ez da ausartuko probatuko lituzkeen esatera.

Istorioen fidagarritasunaren muga horretan, arrabioak lortu du nahi zue-na. Mantso, lasai, beldurrik gabe jarraituko du basopetik ibiltzen. Izan ere, basopeak ez ezik, istorio zaharrek ere ematen diote babesa arrabioari. Errespeta sortzeak ematen duen babesa.

ARROBIYUA

"HERNANIKO BASERRIETAN BILDUTAKO KONDAIRA BATEAN OINARRITUTAKO IPUINA"

ADITUAK DIYOTE ARROBIYUAK GIZAKIEI KALTEK ITEK EZ DAUKALA.

BARA ZUK ENTZUN ATTONAI, TXIKI. TA IN KASU...

UDAZKENEKO EGUN HARTAN, NERI TOKATU ZITZAIDAN AFARIYA PRESTATZEN GELDITZIA...

ERREKA BAZTERRETIK HARTU NUN URA BABAK EGOSTEKO, ELTZIAN SARTZEN ZANAI KASU GEHIEGI IN GABE.

TA AFARIYA PREST ZEOLA, ELTZE BARRURA BEIDATU TA HARAI!

ARROBIYUA HANTXE!

...BESTE BOSTAK ETXOLABERRIKO BASUAN LANIAN AI ZIAN SITARTIAN.

EZ NITTUN BABAK GALTZEN UTZIKO, TA ARROBIYUA HARTU TA BAZTER BATEA BOTA NUN.

EZ NIYEN BESTIEI EZER ESANGO...

ILUNTZIAN, GOSETUTA ETORRI ZIAN BOSTAK, ETA EARKI JAN ZITTUZTEN BABAK ARROBIYUAN IXTORIAZ EZER JAKIN GABE.

NIK EZ NUN BABAIAK PROBATU...

ZORIGAITOKO AFARI HAREN URTEURREN BAKOITZIAN ETORRI OHI NAIZ NERE BOST LAUNEI BIXITA ITEA...

ARROBIYO MADARIKATJAI!

*HORREGATIK ESATEN DA "ARROBIYUAK" POZOIA (BENENOA) DUELA

Nai Labunardi, 18

Urteak

Joxean Agirre

Oporretatik itzultzen garen bakoitzean emaztea kexatu egiten da lehen argazkietan ederragoa ateratzen nuelako. Salbuespenenak salbuespen, lehen gazteagoak ginela gogoratu behar izaten diot. «Bizitza abiadura handiko tren bat da tunel ilun batera sartzen», bota diezaioket, zenbat eta umore hobe, orduan eta metafora baldarragoak ateratzen baitzaizkit. Ondo behar denean, noski, Nabokoven «bizitza bi ilunpe infinituren arteko argi izpia da» aipa dezaket.

Auzoko baserritarrak, ez dakit zer mesede tarteko, urtero sasoi honetan oparitzen didan arkumea hozkailuan prest duela esan dit eta ez dela posible erantzun diot, iazkoa orain gutxi jan genuelako. Irribarre maltzur batekin begiratu

dit, denboraren misterioaz jakitun babiliz bezala.

Duela egun batzuk egin nituen urteak eta, iloba txikienari ilusioa egiten ziolako, ipini genituen tartaren gaineko bikandelak eta zifra ikusi nuenean gozoglea deskuidatu izango zela pentsatu nuen, hain baitzen esajeratua.

Espazio batean gune batzuek dentsitate gehiago duten bezalaxe (futbol zelai batean area txikia da dentsitate gehien duena), denboran ere badaudela beteagoak diren aroak pentsatzen nuen, gartzarora esate baterako, eta zahartzarora betegarririk gabea izango zela. Horregatik erabaki nuen agendak bota eta nire zerak mahai gaineko egutegi batean apuntatzen hastea. Orain, orrialde horietako anabasa begiratzen dudanean Pedro Miguel Etxenik behinola idazten zituen fi-

sikako formulekin gogoratzen naiz, hain baitaude zirriborroz eta geziz beteak. Ia egun bakoitzetik geziren bat ateratzen. Askotan txorakeriak dira. Beste batzuetan enkarguzko lanen baterako hitzorduak. Tarteka manifaren bat. Sendagilerik ez da ageri aspaldian, eskerrak! Hitzordu sentimentalik ere ez. Horrek dentsitatea kentzen dio denborari, baina tira!, ez nuke hirugarren adinean, gaztetan egin ez nuena, nire egutegian geziak eta bihotz erdibituak marrazten hasterik ere nahi. Hutsune hori konpentsatzeko-edo, ekaineko asteburuak bazkariz beteta ikusten ditut: amaginarrebarekin bat, Pariseko ikaskideekin bestea, arkume-jana anai-arrebekin eta koinatuena, azkenik. Bazkalorduak *peta-tuta* ditut. Norbaitek nirekin egon nahi balu, afaltzeko beharko luke. •

Zaindua eta zaintzailea

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Geroz eta gehiago hausnartzen da zaintza lanez, asko hitz egiten da elkar zaintzeaz. Bizkaiko adinikoen egoitzetako gatazkak, esaterako, lagundu egin zuen ezkutuegi geratzen den funtzioa bistara ateratzen. Horrez gain, kontzientzia gehiago dugu, eremu batzuetan behintzat, bizitza erdigunean jartzeak duen garrantziaz. Gizarte mugimenduetan, lan arloan, militantzian... ahalegina egiten da eremuok bizitza pertsonalarekin kontziliatzeko.

Baina teoria baino konplexuagoa da zaintzak gordetzen duen amarauna.

Eremu pribatuan, etxean, familietan geratzen den zaintza lanak desoreka eta injustizia asko eragiten ditu. Urteetan, musu truk, adineko baten kargu egin den zaintzailearekiko errespetu eta begirune gutxi dago oraindik. Adineko horrekiko hartzen diren erabakien berri ez ematerainoko errespetu falta, besteak beste.

Zaintza ez baita astean bitan telefonoz deitzea eta igandeetan pastelak hartuta ama bisitatzea. Zaintza zure bikotekidearen guraso adinekoari burujabea dela aitortu eta haren maniekin

bizitzera ohitzea da; medikuaren edo ile-apaindegira joan behar duenean dutxatu eta txukun jantzi dadila bermatzea. Seme-alabak hazteko eta gurasoak mantentzeko, belaunaldi artean harrapatutako zaintzailea izan zaitezkeela onartzea da. Galdera bera birritan egiten dizunean, ohartu ez bazina bezala hirugarren aldiz ere adeitasunez erantzuteko prest egotea. Baita, gogorra dirudien arren, zaintzailea nondik izorratuko pentsatzen denbora libre asko inbertitzen duela jakitun izatea ere. •



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Komunitate delegatua

Azkenaldion ohi baino sarriagotan tokatu zait komunitate bilerak kaotiko eta amaiezin horietako batean egotea.

Bizilagunen arteko hizketaldi dispertsatuaren erdian, nire auzokide bakoitzaren erradiografia mental zehatz eta gupidagabea egin nuen bitartean, batak ondokoarekin hau eta besteak bestearekin beste nola komentatzen zuen begira, eginahalak egin behar izan ditut enkontru horietatik zerbait garbian ateratzeko. Bukaeran akta sinatzeaz behintzat gogoratu naiz aldiro, bada zerbait.


Lagun bati aipatu nion aurrekoan kontua. Eta hasi zitzaidan kontatzen nola berari egokitu zaion aurten komunitateko presidente izatea eta nola kudeaketa lanetarako gestoria bat duten kontratupean haienean. Gure bileretan ere aipatu da inoiz aukera moduan, baina momentuz ez gara puntu horretaraino heldu. Bizilagunen artean arruntak diren gatazkez aritu gara gero, han eta hemen errepikatzen diren auzokide tipoen analisia ere egin dugu, eta komunitatean bizitzeak dakartzan albo-kalteez eta gorabeheretz bi hitz trukatu ditugu elkarren artean bukatzeko.

Agurtu baino lehen gogorarazi dit lagunak, Ibarretxek ere, euskal erdiko lehendakari zenean, sarritan jotzen zuela auzokideen komunitatearen ideia gobernatzeari buruzko adibideak emateko. Ez dakit Ajuria Enean bizitzeak emandako eskarmentutik ari zen edo berari ere lehendakari izan aurretik komunitateko administratzaile izatea tokatu ote zitzaion.

Ondo pentsatuta dago, edozelan ere. Jendartea osatzen duten pertsonen politikaren aurrean daukaten jarreraren isla fidela baitira komunitate bilerak. Eta joera bat da nagusi beti beste ezeren gainetik: “niri marroirik ez, badut eta nahiko lehendik daukadanarekin”. Esaldi horrekin laburbildu daiteke guztia. Badut nahikoa neurearekin, gainera komunitateaz kezkatzen hasteko. Horrela ulertzen da, aldearekin hobeto, arazoen aurrean hartu beharreko erabakietan gehiengoak, ahal duenean edo arazoak gehiegi eragiten ez dienean behintzat, delegatzearen aldeko jarrera edukitzea gure artean. Kudeatu ditzala beste batek nire kontuak, trukean eskatzen didana zati hainbeste bizilagun eta kitto. Akabo arazoa. Lau urtean behin botoa ematera joan eta gure marroiak, gauzak gehiegi aldatu gabe,

gestionatuko dituen norbait aukeratzeari bezain erraza da. Jartzen diguten prezioa ordaintzeko prest gaude ardura gainetik kendu eta beste bati pasatzearen truke. Momentuz hegaldalderago bizi direnak baino hobeto bizi gara bai, eta jarrai dezala lokomotorrak berearekin. Gure telebista publikoko albistegietan denon diruarekin ordaindutako PNVren publizitateak ikusi eta gero, kontzientzia lasai dugula egin dezakegu lo gutxienez.

Herri burujabe bat lortzeko bidean, beharbada, geure ardurak geure gain hartzetik hasi beharko genuke. Beste batzuek gure ordean erabakitzea onartzen jarraitzeko prest gauden bitartean, tamalez, neguko palazioa eskuratu beharrean txalet batean bizitzen bukatzetik hurbilago egongo baikara. •



Burujabe izateko, geure ardurak geure gain hartzetik hasi beharko genuke.

AMONDARAIN

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Aldarrika ditzagun gure memoria lekuak

Pasa den larunbatean Oñatin Nabarraldeko antolatutako “Memoria lekuak” jardunaldietan parte hartzea gonbidatu ninduten. Bertan hainbat historialari elkartu ginen gure memoria kolektiboa osatzen duten mugarriak aldarrikatzeko asmoarekin; Zugarramurdi, Orreaga, Iruñea, Gernika, Montejurra, Oñati. Sorginkeria salaketengatik emakumeek pairatutako jazarpena, mito bilakatu diren garaipen militarrek, Erresuma Galduaren hiriburua, gudaren astakeriaren sinboloa edota porrot militarrek. Leku horiek eta beste hainbatek osatzen dute gure memoria historikoa, euskaldunon identitatea eraikitzeko oinarriak ematen dizkiguna.

Herri bezala mendeetan zehar eraiki dugun nortasuna agertoki horiek eman digute, baina, kasu nahiko egin al diegu? Komunitate bezala ezagutzen al ditugu? Gure identitatearen mugarri izatea nahi al dugu?

Inguruko herriek beraien mugarriak ezagutu eta lotsarik gabe aldarrikatzen dituzte: Frantziak badu bere *La Marseillaise* edo Paris; Italiak, Erromatar Inperioa; Espainiak, Birkonkista, Errege Katolikoak eta Inperioa; Ameriketako Estatu Batuek, *Far West*-a eta nazio-bandera. Garrantzitsua da, beraz, ukatu dizkiguten mugarriak guk ere aldarrikatzea. Baina gure garaipen eta porrot militarrek ezagutu eta aldarrikatzetik haratago, euskal nortasuna osatzen duten memoria lekuak gureganatzeari garrantzitsuagoa deritzot. Hau da, edozein gizarte eraikitzeko kontakizun propio bat izatea ezinbestekoa bada, gure inguruko herriek erabili izan duten errelato militarra alde batera uztea proposatuko nuke nik. Euskaldunek Orreagan izandako paper protagonista, Nafarroako Erresumak eman zigun entitate juridikoa edo Gernikak suposatutako sarraskia ahaztu gabe, bila ditzagun

euskal identitateari zentzua ematen dioten beste parametro batzuk.

Piere Norak *Les lieux de mémoire* proiektu historiografikoan azaldu zuen “memoriaren leku” kontzeptua: izakiaren gogoz edota denboraren poderioz komunitate baten oroimenezko ondarearen baitako elementu sinboliko bihurtu den zernahi izate esanguratsua, materiala izan ala ez. Euskaldunak gara historia amankomun bat dugulako, hizkuntza propioa eta entitate kultural bat osatzen dugulako. Baina, batez ere, herri burujabe bat bat izanen gara horretarako gogo dugulako. Nahian, edo gogoan, dago pisua. Piere Norak azaldu bezala, identitatea bezala, memoria ere eraiki daiteke eta hori ematen da bai herri batek gertakizun bat aukeratu nahi duenean bai gertakizun hori nabarmendu nahi duenean. Beraz, beste mota bateko gizarte bat eraiki nahi badugu, mendeetan gure konkistatzaileek gudaren bidez inposatutako gizarte eredu horretatik aldentzen dena, hau da, paradigma militarretik, inperialistatik, kapitalistatik eta patriarkaletik aldentzen dena, badugu aukera gure burujabetza markatuko duten mugarriak aukeratzeko.

Auzolana, komunalak, Foru Zaharra, euskara bera dira ditugu mugarri baliotsuenak, memoria leku nabarmenenak nire ustetan. Gure legeek euskal emakumei beraien ondareak kudeatzeko emandako gaitasun maila altua bada ere mugarri bat, horrek azaltzen baitu euskal emakume indartsuaren irudia. Noski, gertakizun historikoak hor daude, historiografia espainiar eta frantziarrarengatik isilduak izan dira hamarkadetan eta historialarion lana da horiek aldarrikatzea. Baina mendeetan euskaldunok antolatze eta komunikatzeko izan dugun modua gure legeen bidez eta gure hizkuntzaren bitartez garrantzitsuagoak direla deritzot. Horien gainean eraiki beharko genuke gure memoria eta gure burujabetzaren nortasuna. •

Identitatea bezala, memoria ere eraiki daiteke. Hori gertatzen da herri batek gertakizun bat aukeratu eta hori aldarrikatzen duenean

Alcasser herri-ko hiru neska-txaren hilke-tak belaunaldi oso bat mar-katu zuen Es-tatu espainiarrean orain 26 ur-te; are gehiago, emakume belaunaldi oso bat zauritu zuen. Miriam Garcia, Desiree Hernandez eta Toñi Gomez gazte valentziarrek jasandako torturez eta bortxaketez he-dabideek egin zituzten errela-toek muga guztiak gainditu zi-tuzten: etikoak, moralak, deontologikoak... 1992ko aza-roaren 13an, orduan 14 eta 15 urte zituzten hiru neskak de-sagertu egin ziren, eta, 75 egun geroago hilik agertu ziren, tor-tura basatiak jasan zituzten zantzuekin.

Nerea Barjola Ramosek (San-turtzi, 1980) gertaera lazgarri haiek hartu eta tesia egin zuen EHUko Feminismo eta Gene-roko doktorego ikasketen bai-tan. Orain, Virus argitaletxea-ren eskutik, “Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual” liburua argita-ratu du, Silvia Federiciren hi-tzaurrearekin. Defendatzen duenez, krimena sexu-arris-kuari buruzko kontakizuna izan zen, sexu-beldurrari bu-ruzkoa. Egin zen errelatoa, emakumeei helarazitako me-zua, kontuz ibiltzekoa izan zen, espazio publikoa hartu baino lehen bi aldiz pentsatze-ko. Emakumeen askatasuna-ren aurkako mezua izan zen. Eskainitako xehetasun maka-broek sexu-krimena ikuspegi politiko-feministatik pentsatu edo aztertzea saihestu zuten. Eta emakumeen gainean jarri zen begirada, gertatutakoaren ardura edo erantzukizuna haiena zela iradokiz, «auto-stop egin zuten-eta».

«Errelatoak bere oinarriak gazteen erruduntasunean jartzen dituen unean, kasu honetan auto-stop egin izana, sexu-arriskuaren irudikapen bat eraikitzen ari da»



«Alcasserko kasuaz egin zen errelatoa emakumeon artean sexu-terrorea zabaltzeko baliatu zen»

Sexu-arriskuaren gainean egin ziren irudikapenez egin duzu hausnarketa...

Lanarekin hasi nintzenean oinarritzeko asmoa honakoa zen: ikustea nola sexu-arriskuaz egiten diren errepresentazioek emakumeon praktikak eta jokabideak mugatzen eta baldintzatzen dituzten. Sexu-belduraren gainean existitzen diren irudikapen guztiek benetan egiten dutena zera da: jokaerak zuzendu, mugak zehaztu, egin dezakeguna eta egin ezin duguna finkatu.

Hortik abiatuta, ezinbestekoa iruditu zitzaidan ikerketa Alcasserkoa bezalako kasu batekin egitea. Nire kasuan, gainera, sexu-arriskuaz jaso nuen lehendabiziko errelatoa izan zen; kasuaz egin zen kontakizunak gazte belaunaldi oso bat baldintzatu zuen bere jokabideetan.

Zein da sexu-arriskuaren irudikapenaren adibide bat?

Hedabideek zein garaiko jendarteak neskek gau hartan auto-stop egin izanari izugarritzeko garrantzia eman zioten. Errelatoak bere oinarriak gazteen erruduntasunean jartzen dituen unean ekintza soil bat egin izanagatik, kasu zehatz honetan auto-stop egitea, sexu-arriskuaren irudikapen bat eraikitzen ari da, eta gainontzeko emakumeei ohar argi bat igortzen zaie: zer den egin behar ez dutena gauza bera gertatzea nahi ez badute.

Zergatik erabaki zenuen Alcasserko kasuan oinarritzea?

Ez da ezaugarri berak eduki eta nigan halako eraginik izan duen beste errelatorik egon, baina egia da belaunaldi bakoitzak sexu-arriskua suposatu duen errelato propioa izango duela. Gaur egun, nerabe

askok Diana Quer izango dute buruan, duela urte batzuk Marta del Castillo izan zitekeen bezala. Beste batzuk ere egon dira lehenago: Rocio Wanninkhof, edo Euskal Herrian Virginia Acebes... Nire kasuan Alcasser oso garrantzitsua izan zen; kasuak oso ezaugarri gordinak ditu, muga guztiak gainditu zituzten, xehetasun guztiak argitaratu ziren eta oraindik egun ere eragina du, Alcasser mintzagai da.

Iaz 25 urte bete ziren gertatutakotik, eta aitzakia izan zen berriro mugak gainditzeko...

Hedabideek ez dute beste ikuspuntutik baliatu gertatu zena aztertzeko. Ez dute kontatzen krimena muga politikoak birtentsatzeko, baizik sexu-terrorea erreproduzitzeko. Argi dago arreta hiru gazteen gainean jarri zela: beren jokabidea epaitu zen, kritikatu egin zen, mugaren bat edo beste gainditu ote zuten aztertu zen... eta baita zer jazo zitekeen egin izan ez balute ere. Ez zen arreta egileen gainean jarri. Eta gauza bera ikusi dugu Iruñeko [sanferminetako] erasoarekin. Eta beste hainbeste erasorekin, eraiketa matxista bakoitzarekin... Fokua beti jartzen da emakumeen jarreraren gainean, eta hori abisua da gainontzeko emakumeontzat.

Zergatik gertatzen da hori? Ezer aldatu al da azken 25 urteotan?

Funtsean ez da ezer aldatu. Gero eta kazetari gehiago ari dira lanean ikuspuntu feministarekin, beste kazetaritza mota batekin konprometituta dauden kazetarien adibideak baditugu, baina errealtatea jendartea edo gorputz soziala makinan matxista heteropatriarkala dela da, misoginoa da, eta oso

zaila da horren aurka borrokatzea. Horrek zaildu egiten du errelato ez matxista bat egin ahal izatea. Niretzat, gainera, zitalena da diskurtso feministak ikasiak dituzten hedabide batzuek, ondoren, indarkeria matxista kasuak kontatzean, errelato matxista erreproduzitzen dutela.

Zergatik igarotzen da emakumearen gorputza pribatua izatetik publikoa izatera? Kritika, epai eta iritzi iturri bihurtzen da gainera...

Erregimen sexista batean bizi gara, oinarriak egitura patriarkalean dituen. Xehetasunean sartuz gero, esango nuke emakumeen gorputza gorputz publiko bezala eraikitzen dela. Hedabideek emakume gazteen belaunaldi oso bat egitura zuten. Alcasserko kasuan, jendarteak gazteen erruduntasunaren inguruko errelatoa eraiki zuen neurrian, sufritu zituzten sexu-torturez mintzatu ziren hedabideak, detaile morbosenak eskaini zituzten, autopsiak eskura izan zituzten... Desiree, Toñi eta Miriamen gorputzak erasotzaileentzat bezain publiko bihurtu ziren. Gorputz publiko eraiki zen, eta emakumeez ari garen bakoitzean gertatzen da.

Nesken heriotzek eta egin zen errelatoak mugimendu feministak orduan irekiak zituena bideak hautsi zituela aipatzen duzu liburuan.

Mugimendu feminista 80ko eta 90eko hamarkadetako borroka garrantzitsu batetik zertorren, eta krimenok mito eta estereotipoak ahultzeko oztopo izan ziren. Familia indartu zuten, gizonen babes eginkizuna finkatu zuten, gizonen emakumeen gorputzaren gainean duten boterea indartuz.

NEREA BARJOLA RAMOS

FEMINISMO ETA GENEROKO DOKTOREA

Alcasserko kasuak emakume

belaunaldi oso bat markatu zuen.

Errelatoak beldurra zabaldu zuen; hura

aztertu eta esanahi berria eman dio.

Oihane Larretxea de la Granja

Bide penalean ematen ari ziren aldaketak eragina izaten hasiak ziren arlo sozialean. Espazio publikoa okupatzearekin batera, emakumeak aurrerapausoak ematen hasiak ziren: Dibortzioaren Legea, antisorgailuen erabileraren deskriminalizazioa, abortua... Horiek guztiak familia ereduaren aurkako erasotzat hartzen ziren. Alcasserko gertaerak berrikuntzok egunerokoan txertatzen ari zirenean jazo ziren.

Iruñeko bortxaketa aipatu duzu. Kasu gutxik mugitu du jendartea honek egin duen bezala. Zein paper du mugimendu feministak?

Erabatekoa, masa mugitzen ari den subjektu politikoa da feminismoa, metatu diren indarrak bideratzen ari da. Baina hortik harago, mugimendu feminista beti egon da presente, eta indarkeria sexista eta matxistari izena jarri dio. Gauzak bere tokian jartzen dituen elementua da. Bere azken helburua ez da legea aldatzea, eta ezkerreko indar ororen ezkerrean egongo da beti, pausobat aurrerago.

Nola eraikitzen da sexu-terrorearen diskurtsoa? Eta zeintzuk dira diskurtso horren elementuak?

Osagaiak anitzak dira oso, baina erabat koordinatuta daude. Alde batetik, hedabide indartsuak ditugu, etengabe emakumeoi mezuak igortzen. Albisteek ez dute benetako eztabaida sustatzen gizonek emakumeen aurka sexu-erasoak egiteko duten pribilegioaren inguruan; azken finean, emakumeek egin behar ez litzuketen gauzen gainean sortzen dituzte albisteak. Bestetik, gure errealitate soziala dago. Jasotako mezuokin uler-



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

«Erresistentziaren errelatoa ere izan zen. Emakumeok gure gorputzetatik eutsi genuen, ez genuen gure espazioa dohainik entregatu. Askok auto-stop egin zuten berriro»



tarazten da gertatzen dena eta tresna horiekin ematen zaio testuingurua indarkeria matxistari ere.

Ezertan aldatu al dira emakumeoi helarazten zaizkigun mezuak?

Mugimendu feministak saiakera handiak egin zituen Alcasserko kasuan eztabaida termino egokietan eman zedin, baina hiru gazteen heriotzak halako inpaktua eragin zuen oso zaila izan zela indar horri aurre egitea. Egun, bestalde, azpimarratuko nuke mugimendu feministaren aldetik oso erantzun sendoa existitzen dela; onerako zein txarrerako, sare sozialak mugimenduarentzat arma eraginkorra dira. Era berean, ordea, indarkeria gune dira, kide askok sufritzen dute egunero. Edozein kasutan, indartsu gaude.


Mugimendua mundu mailakoa da. Horren adibide dira #metoo edo #cuentalo bezalako ekimenak. Ahots asko piztu dira, emakumeok ez dugu isilik jarraitu nahi...

Uste dut iraganaren eta geroaren artean marra finkatu deza-keela mundu mailan ematen ari den kontzientziazioak, aktibazioak... Ziur naiz hau geldiezina dela. Eta ez bakarrik sareotan eman diren salaketak direla-eta, Irlandan abortuaren inguruan erabaki berri dena beste adibide bat da.

Zein da, lana amaituta, atera duzun ondorioa? Akaso zeinuen ideia berretsi duzu...

Lanarekin, batez ere, Alcasserko errelatoari beste esanahi bat eman nahi nion, ikuspuntu feminista batetik. Azken batean, testuinguruan kokatuta, sexu-arriskuari buruzko erre-

latoak oso tresna eta arma indartsuak dira feminismoarentzat. Baina, bestetik, gustatzen zait azpimarratzea ere Alcasserkoa ez zela bakarrik sexu-arriskuari buruzko kontakizuna izan, erresistentziaren errelatoa ere izan zen aldi berean: emakumeok gure gorputzetatik eutsi genuen, ez genuen gure espazioa dohainik entregatu. Alcasserko kasuaren inpaktua sufritu zuten hainbat emakume elkarrizketatu ditut liburua idazteko eta, gauza batzuk egiteari uko egin bazioten ere, transformazio bat ere eman zen haiengan ikuspuntu feminista batetik. Ondorioz, askok auto-stop egin zuten berriro, espazio publikoa hartu zuten... Sexu-terrorearen errelatoak erresistentzia errelatoak ere badira feminismotik beste esanahi bat ematen diegunean.

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is calm and serene.

GAUR8

ireki gure leihua



BIDAIA ALDIZKARIA
7haizetara

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN **SALGAI**



FORMENTERA

Paradisua ekologia du xede

Ibiza eta Mallorca «galdutzat» jotzen diren arren, Balear Uharteen txikienak eutsi egin dio masa-turismoaren oldarraldiari. Are gehiago, planto egingo die autoei 2019an.

Eta gainera: Xauen, Rif-eko altxorra • Sukaldaritza mexikarraren zaporeak • Zetazeoak euskal kostaldean • Tirol eta Dolomitak ezagutzen • Kauai, aparteko uhartea Hawaiin...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

AHOA BIZI, BELARRIA PREST

Euskaraldiaren antolaketak harrera bikaina izan du Arabako Lautadan

📁 EUSKARA / Xabier Izaga Gonzalez

Duela urte erdi aurkeztu zuten Euskaraldia eta urte erdi barru *ahobizi*-ek 11 egunez dakienari edo ulertzen duenari euskaraz egiteko konpromisoa gauzatuko dute; *belarriprest*-ek, berriz, eurekin euskaraz egiteko gonbita egingo diete euskaraz egiteko gai direnei.

Euskaraldia ez da euskararen aldeko ohiko kanpaina bat. Atxikimendua erakustetik harago, ariketa praktikoa da. Euskal hiztunak aktibatu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkarte azken urteetan landutako “Euskarak 365 egun” lan ildotik abiatu zen, eta ekimenak «bi mugari» izango ditu. Batetik, azaroaren 23tik abenduaren 4ra egingo den “Euskaraldia 11 egun euskaraz” ekimenaren helburua euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea da, beren ohiko harremanetan euskara gehiago erabil dezaten. Bestetik, ekimenaren ostean mota guztietako entitateek euskararen erabilera babestu eta sustatzeko neurriak hartzea dute helburu, «hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatuta».

Ekimenak izan dezakeen eraginkortasuna ikusarazteko iaz aurkeztutako VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta VII. Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak nabarmendu dituzte. Horien arabera, euskaraz hitz egiteko gai den gero eta jende gehiago dago, eta gehiago dira, halaber, ulertzen dutenak; beraz, baldintza soziolinguistikoak gero eta hobeak dira, baina euskarazko harremanak ez dagozkie

baldintza horiei. Desoreka nabarmena da.

ARABAKO LAUTADAN, POZIK

Euskaltzaleen Topagunearekin batera beste hainbat elkarte eta erakunde publiko elkarlanean ari dira, eta batzorde eragile ugari eratu dituzte dagoeneko.

Zazpi herrialdeetako 300 udalerritik gora ekimena antolatzen lanetan ari dira. Ekitaldian parte hartzeko herritarren izen-ematea irailean hasiko da, baina, antolatzaileen ustez, Euskaraldiari buruzko informazioa zabaltzea oso garrantzitsua da. Hedapen lan hori

egiten laguntzeko, apirilean zenbait lagun ezagunek Euskaraldiaren lehengo hamaikakoa osatu eta herritarrei nork berea osatzeko gomendatu zieten.

Arabako Lautadan, joan den apirilaren 26an aurkeztu zuten eskualdeko lehen hamaikakoa, Dulantzín, baita egun berean, udalerrri horretakoa ere. Joan den astean Aguraingoa eta atzo Asparrenekoa aurkeztu zituzten. Pozik agertu da eskualdeko antolakuntzako kide Asier Lafuente GAUR8ri horren berri ematean.

Abian dituzte hiru prozesu edo kanpaina: izena ematekoa, herritarrak prestatzekoa eta sustatzaileak lortzeko «edo lortzeko» kanpaina. Azken hori Arabako Lautadako kolektibo-
ei, enpresei edo dendei sustatzaile izan daitezkeen proposatzea da, beren kide, langile edo bezeroak izena ematera animatzeko, ikastaro edo prestakuntza saioak antolatzeko...

Abian daude, beraz, hiru prozesuok eta erantzuna oso ona izan dela dio Asierrek. Iazko udan hasi ziren eskualde osoan bilerak egiten eta hasieratik sumatu zuten jendearen interes handia, horregatik antolatu zuten Lautadako Euskararen Komunitatea. «Hortik etorri da hau guztia». Hiru batzorde ditu komunitateak: Dulantzín, Agurainen eta Araian (Asparrena). Bestetik, herri guztietan bilerak egin dituzte eta uneotan 42 kontzejutan onartu dute ekimena sustatzea. Eskualdea osatzen duten 63 herrixketatik 55etan eragileak daude, leku horietan sustatze eta antolatze lana egingo den bermea, alegia.

Asierrek azpimarratu du ez dela euskararen aldeko atxikimendua adierazte soila, berekin jarrera aldaketa daraman zerbait baizik. «Horixe da orain artekoarekiko alderik handiena», nabarmendu du. Orain arteko inertzia identifikazio kanpainak egitea izan dela dio, baina orain ez dela «alde nago» esatea bakarrik, baizik eta hizkuntza portaera bera aldatzea. «Horretaz kontziente izan behar dugu eta horregatik eman diogu horrenbesteko garrantzia jendea prestatzeari, ondo ulertu eta konpromisoa har dezaten».

Izan ere, ekaineko agenda ikastaroz eta tailerrez beteta daukate. «Euskaraz hitz egiteak ez du esan nahi *ahobizi* izango zarenik; horretarako konpromisoa behar da, ulertzen duten guztiekin euskaraz egitea, eta ez gaude horretara ohituta. *Belarriprest*-ek erdaraz erantzungo digute, eta, normalean egiten ez dugun bezala, euskaraz hitz egin beharko diegu». Oso erabaki kontziente izan behar duela dio Asierrek behin eta berriz.



Aguraingo «ahobizi»-en eta «belarriprest»-en lehen hamaikakoa.

Lautadako Euskararen Komunitatea



Amaia Olasolo, argitaratu duen lehen liburuarekin. Juanan RUIZ | FOKU

infraganti AMAIA OLASOLO

Amaia Olasolok literaturarako jauzia eman du estreinakoz, «Por fin lo sé. En busca del propósito de vida. Una extraordinaria historia de autosuperación y reinención» liburuarekin. Mathilde Denoir protagonista paristarraren azaletik, norbere buruaren garapena bilatzen duen fikziozko nobela da, bizitza oztopoz betetako bidaia dela ulertuta.

Zilarrezko bitxiak jantzita eta bizitzan zehar ikasitakoa soinean agertu da Amaia Olasolo. Izan ere, ez da gutxi bidean ikasi duena, eta, dioenez, ikas-teko falta zaiona ere ez. Berak egindako zilarrezko eraztundun eskuarekin zorabiatu du

kafea, Gasteizen kutuna duen kafetegi batean. Arrasaten jaioa, Gasteiz du orain bizitoki, baina hara-hona ibili da Arabako hiriburura iritsi aurretik. Madrilen, Parisen eta Düsseldorf-en bizi izan da.

Olasolok dio pertsona guztiok daukagula «patu» bat, guztiok jaio garela egiteko batekin, eta egiteko hori beste

inork baino hobeto gauzatze-ko gai garela. Alabaina, patu bat izanagatik ere, bizitza ez da, Olasoloren iritziz, helmugara iritsi arte segi daitekeen marra lineal bat; kontrara, pertsonok marra sigi-sagatsu batean alderrai ibiltzen garela dio, korapilatu egiten dela, eta patua bera ere aldakorra izan daitekeela, bizitzaren igaroan

hartzen diren erabakien eta bakoitzaren familiaren, lagun-en, esperientzien menpeko. Zenbat aldiz begiratu ote dugu atzera eta pentsatu: «ez nuen erabaki hori hartu behar». Baina orainaren talaia tranpatia denez, eta tronpatzen ez denak ez duenez ikasten, ahultasunak aldarrikatu eta korapiloak deslotu behar direla uste du Olasolok. «Ideiak ez dira landuta sortzen, garatu egin behar dira».

Bizitza frenetiko bezain interesgarria izan du Olasolok, oztopoz eta erabaki on zein txarrez betetakoa, eta «Por fin lo sé» liburuan islatu ditu bere bizipenak, «jendeari laguntzeko asmoz». Fikziozko nobela da «Por fin lo sé», baina bertan kontatzen diren esperientzia asko idazleari berari gertatutakoak dira. Horregatik, Amaia Olasolo ikustean, badirudi liburuan lerro-artean idatzita dagoena irakur zenezakeela, eta *dejà vu* baten gisa, Mathilde Denoir liburuaren protagonista ikus dezakezu istant batez, kafe berbera Pariseko taberna batean zorabiatzen.

Olasolorentzat garrantzitsua da pertsona bakoitza den moduan agertzea, «mozorrorik gabe», eta halaxe kontatu du bere bizitza eta Mathilderena, normalean esaten ez diren gauzak ere lehen lerrora ekarrita. Izan ere, liburu zuzena eta irakurterraza da, eta orrietan deskribatzen direnak edonork bizi ditzakeen egoera arruntak dira. Errealitatetik gertu egonagatik, norbere burua ezagutzera eta auzitan jartzera bultzatzen dute.

Liburua idaztea beste ikas-kuntza bat izan da Olasolorentzat, eta bere helburua jendea laguntzea den arren, ez da autolaguntza gisa ezagutzen diren liburu horietako bat, fik-

ziozko nobela baizik: «Istorio baten bidez errazagoa da irakurleak bere burua liburuan gertatzen diren gauzekin identifikatzea eta erabaki nuen fikzioa egitea. Asko egiazko gertaerak dira, bai niri bai nire ingurukoei gertatutakoak».

Hamar urteko epean bizitako esperientzien zurrunbiloa-ren kapitulua ixteko eta orri berriak zirriborratzeko egin zuen liburua idazteko hautua: «Erabaki nuen minarekin bukatzea, eta osatu egin behar izan nintzen. Hortik atera zen liburu bat idazteko ideia». Balentriaz beteta idatzi du, zenbaitetan bere burua biluziz, liburuko orriak bere ispiluak bailiran.

MATHILDE DENOIR

«Gaizki bukatu diren saiakerekin bizitzen ikasi dut, beldur-rekin eta dezepzioekin, baina horiek guztiak esperientzia gisa ulertuz». Olasolok idatzitako esaldi horrekin laburbildu daiteke liburuaren funtsa.

Mathilde Denoir eleberriko protagonistaren bizitza gatazkaz betetako bizitza da. Fabienekin ezkondata dago, ez nahi bezain gustura, eta Ipar Euskal Herrira bere bi ahizpekin egingindako bidaia batean gizon bat ezagutzen du. Momentu horretatik aurrera bere bizitzako ibilbidea auzitan jartzen hasten da eta bere buruari galderak egiten hasten da, jakin nahian zein den egiaz nahi duen lana, alboan izan nahi duen pertsona, zer den zoriontsu egiten duena. Horren bila, aurkikuntza eta jakintzazko bide luze bat abiatzen du, eta bere burua ezagutzera eta etengabe biziberritzera bideratzen ditu indar guztiak.

Etengabeko introspekzioaren kontakizunaren bitartez, irakurleari egunerokotasune-

ko oztopoak gainditzeko adibide praktikoak ematen dizkio, baina gidaliburu bat ez denez, eleberrian ematen diren erantzunak ez direla edozeinentzat baliagarri aitortu du autoreak. Horren orde, fikziozko bizitza baten bitartez, irakurleari «pistak» ematen dizkio bere barne gatazkei aurre egiteko: «Nire helburua da irakurleren bat Mathilderen antzeko egoe- ra batean baldin badago, egoe- ra horietan ez dezala berak be- zainbeste sufritu, Mathilderen prozesua oso gogorra izan bai- ta. Hala ere, esan beharra dago bidea helmuga bezain garrant- zitsua dela, edo garrantzi- tsuagoa. Mathilde eta Amaia- rentzat oso zaila da hori onartzea. Nire mezua argia da: aurkitu zure bidea, zure kon- ponbideak. Nire bideak lagun- du zaitzake, baina bakoitzak berea garatu behar du».

Gasteiz eta Parisen arteko el- karrizketa darabil ahoan Amaia Olosolok. Madame Kiwi izena jarri zion bere kabuz abiatu zuen bitxigintza enpre- sari, baina, zailtasun ekonomi- koak medio, enpresa itxi be- har izan zuen, bitxiak egiten jarraitu zuen arren. «Jantzita ditudan eraztuna eta brotxa nireak dira», esan du bitxiak erakutsiz. Antzekoa gertatu zi- tzaion Mathilde Denoirri Ma- dame Joelle tankera berdineko enpresarekin. Biak ala biak eu- ren lanak utzi zituzten bitxi- gintzan buru-belarri aritzeko, jakinda ekonomikoki bizi-mai- la jaitsiko zutela, eta biek itxi behar izan zituzten enpresen ateak. Ilusio handiz ireki zuen Olosolok bitxitegia, eta libu- ruan Mathilderen ahotik kon- tatzen du momentu horretan nola sentitu zen. «Eta orain zer?» galdetu zion bere burua- ri. «Nik espero nuen gauzak hobeto ateratzea. Momentu



horretan txikitu egin nintzen. Baina, horrelako egoeratan zu- re burua berrasmatu behar duzu, zer egin nahi duzun era- baki eta momentuko dolua kudeatu», esplikatu du.

EMAKUMEA ETA DOLUA

Emakume espirituala da Amaia Olosolo. Hiri handieta- ra ohituta dago, baina natura- ra jotzen du emakume izaera esplikatzeko. «Haurrak izateko gai denez», emakumea «sor- tzailea» dela dio, natura sor- tzailea den gisara, baina ema- kumea harreman horretatik aldendu dela iritzi du Olosolok, eta horrek eragin zuzena izan duela egungo «emakume prototipikoa» eraikitzerako orduan. «Naturarekiko lotura galdu egin da. Harreman hori berreskuratu behar dugu, gu- retzako ona delako», esan du.

Natura albo batera uzteare- kin batera, emakumea gizon- tasunak ezarritako bide orria jarraitzera mugatu dela iritzi dio. Liburuaren hitzaurrean, Germana Martinen hitzak jaso

ditu idazleak: «Gutako askok ahalegin guztiak jarri ditugu aginpide patriarkalak betetze- rako orduan: karrera profesio- nal bat izatea, ekonomikoki in- dependenteak izatea, egiten dugunarekin arrakasta lortzea, eta abar. Eta lorpenak eta hel- mugak biltzen diren toki ho- rretara iristen garenean, galde- tzen diogu gure buruari: zertarako balio du horrek guz- tiak?». Olosolok gehitu du: «Ahalegindu gara gizonen pa- troien barruan gure bizitza an- tolatzen, eta gure burua ukatu dugu, emakume izaera existi- tuko ez balitz bezala. Hori gi- zonen aldeko interesek eragin dute. Denak zaku berean sartu gabe, noski».

Emakume izaerarekin lotu- ta, eleberrian argi azaltzen da Mathilderen sentimenduen eta bere bizitzan zeharkatu di- tuen gizonen sentimenduen arteko desoreka. Aurpegi asko- tako doluaren mamua Mathil- deren gorputzean iltzatzen da, eta indarrak batu behar ditu dolu horiei aurre egiteko, bere

gizonezko bikotekideek, kasu askotan, aise gainditzen duten bitartean.

Dolua, iragankorra baina he- zigaitza, eleberriaren beste protagonista bat da. Olosolok argitu du dolua ez dela baka- rrik «gertuko bat hiltzen dene- an jasaten dena»; bikotekidea- rekin harremana haustean, zure burua lana uztera behar- tzean, bertatik kaleratua izate- an... «Dolu horiei buruz ez da hitz egiten, baina askotarikoa izan daiteke dolua». Hala ere, doluak bezainbat konponbide daude, eta Mathilde Denoir guztiak kudeatzen saiatzen da; korapiloak askatuz gero eta li- breago izan arte.

ARGITALETXERIK GABEKO EKOIZPENA

Eleberria irakurtzeko asmoa duenari abisua bota dio Olosolok: «irakurriz gero, ez zaitu berdin uzten». Idazlearen hitzetan, hiru irakurle mota egon daitezke: «Lehenik eta behin, identifikatzen dena, li- buruari esker gauzak beste modu batera ulertzen ahale-

gindu eta bizitza beste modu batera bizitzera animatzen de- na. Bigarrenik, liburua gustatu ez zaiona. Eta, hirugarrenik, li- burua gozatu bai, baina haus- narketa hori egiten ez duena».

Irakurlea bat edo beste izan, Olosoloren helburua da libu- rua ahalik eta jende gehiena- rengana iristea, «ahalik eta bihotz gehien ukitzeko». No- belaz azkar kaleratu nahi zue- nez, argitaletxerik gabe argita- ratzeko hautua egin zuen, editorialen zain ez egoteko. Hartara, liburua abenduaren 31n «askatu» zuen. «Urte be- rria, bizitza berria». Nobela es- kuragarri dago Ayala, Mayner eta Elkar liburu dendetan eta baita Amazon atarian ere.

Liburua idaztea terapia mo- duko bat izan da arrasatearra- rentzat, eta badirudi ez dela li- teraturaren psikologiatik aldenduko. Bigarren nobela bat dauka buruan, «bizitzare- kin eta heriotzarekin» zeriku- sia izango duena. •

Maddi Txintxurreta Agirregabiria



Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Motxiladun haurrak

Adibidez, haur bat motxila jantzi eta eskolara joaten: zortzi eta bederatzi urte bitarteko mutiko txikia motxila hartu eta aspertuta, nekez eskolara joaten; poz-pozik joan beharrean, eskolara pauso pisutsuz joaten diren haurrak. Askotan mutilak dira, mutil biziak, jolasteko amorratzen daudenak, geldirik egon ezin dutenak, animaliak gustatzen zaizkienak, sentiberak...

Noiz eteten da eskolara pozik joateko unea? Noiz gertatzen da hori eta zergatik ez diogu garrantzirik ematen? Zein hezkuntza eredu ari gara bultzatzen? Eta Euskal Herriko lehen hezkuntzako irakasleen gehiengoak emakumezkoak direla jakinda, zer gertatzen zaigu “mutil alfa” horiekin gelan? Zerk mugitzen gaitu? Zeini begirako hezkuntza ari gara eskaintzen?

**Bat-batean, beste irudi bat dator-
kit burura, «Ur handitan» progra-
mako haur hura... autobusa hartu,
motxila jantzi eta izebarekin gura-
soak ikusteko mila kilometro egi-
ten zituen hura. Zein krudela... aita-
ren eta amaren goxotasunaz
gozatzeko hain leku hotzera, hain
urrutira joan beharra, hainbesteko
nekea pilatu beharra. Eta distantzia
horrek eragiten duen kalteak haur
txikien motxilen pisua nola handi-
tzen duen ohartu gabe gu geu. Atxi-
kimenduaren beharraz eta presen-
tziaraz hitz egiten dugunean, nola bizi
ote dute haur horiek distantziatik?**

Motxiladun haurrak izan ohi dira, era berean, banaketa prozesuetan murgildurik bizi direnak ere. Batetik

bestera beraien motxilarekin dabil-
tzan haur ederrak. Motxilak duen
pisua, gainera, gurasoen arteko lis-
karrek eragindakoa da maiz.

Helduok gure artean konpondu ezin eta haurrak ping-pongeko pilotak bailiran motxilarekin handik hona ibiltzera behartzen ditugu. Behin kontsultan mutil txiki bati galdetu nion ea zertan nahi zuen nik laguntzea? Eta hark niri erantzun: «ni zoriontsuago nintzateke motxilarekin hainbeste ibili beharra ez banu...». Goizean goiz amonaren etxera, handik eskolara, gero jangelara, jarraian amari kasu egin, eta, gero, zaintza partekatua zutenez, aitaren etxera afaltzera. Zaintza partekatua nendik norakoak, helduon liskarrak, botere eta diru kontuak...

Gogora datozkit harreran eta adopzioan dauden haur txikiak ere. Beraiek ere bere minak eta nostalgiak, gogoetak eta irudiak

motxilan gordeta ekartzen dituzte saioetara... Negar egiten eta jolas-ten atxikimendu segurua lortzen dugu, eta zauritxoak sendatzen hasten gara guztion artean. Haurrok beraien guraso berrietara egokitzen joaten dira, komunikazio bide berriak sortzen, eta motxila txikien pisua arintzen joaten da.

Motxilatik motxilara ere alde
egoten da, tamainan, kolorean eta
pisan. Baina gure erresilientzia
gaitasuna baliatu eta motxila guz-
tiak arintzen dira, alaiago bihurtu
denon arteko elkarlana pizten de-
nean, naiz eta batzuetan gure esku ez
egon baldintza asko, dela aita presoar-
en gertutasuna, dela gurasoen herio-
tza, dela banaketen osteko erabakiak...

Gustatzen zait motxilak hustea eta haurren irribarreak goxatzea, gustatzen zait haurron pisua arintzea. Azken batean, ni neu ere arinago sentitzen naizelako! •



Gure erresilientzia gaitasuna baliatuta, motxila guzti-guztiak arintzen dira.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



VICENTE MARTIN. KUTXATEKA

DEGRELLE NAZIA KONTXAKO HONDARTZAN

1945eko maiatzaren 8an, Leon Degrelle buruzagi naziak, Alemaniako Waffen-SS indarrei atxikitako Valonia Legioa atzerriko unitateko ofizial belgikarrak, Oslotik ihes egin zuen Heinkel 111 bonbaketari batean (Gernikako bonbardaketan erabili zuten modelo berekoa). 2.150 kilometro egin ondoren, gasolina bukatu zitzaion eta Donostiako Kontxako hondartzan lurreratu zen. Erregimen frankistak babes eman zion. Belgikan heriotza zigorra ezarri zioten urte berean gerra kriminala izateagatik eta erregimen naziarekin kolaboratzeagatik, baina Francok uko egin zion haren estradizioari. 1994an hil zen, Malagan. Argazkia Vicente Martin gazte donostiarrak egin zuen. Agustina Zugasti bere amarekin Fotocar argazki denda gobernatzen zuen. Donostiako Easo kalean zilar-lantegi bat zuen Satostegui, argazki zalea hura ere, elkarrizketa batean gogora zekarrenez, tailerrean zegoela, Kontxako hondartzatik oso hurbil, burrunba handia entzun eta korrika irten zen bere argazki kamera aldean, eta Leon Degrelleren hegazkinaren zenbait argazki egin zituen.

ETA*ren* zuzendaritzarekin **azken elkarrizketa**

**Euskal Herriaren
historiarako
kazetaritza
lan itzela**

Kasik 400 galdera



**GARAren eta
Txalapartaren
arteko koedizioa**

*Gernikako bonbardaketatik Arnagako Adierazpenera
doan ziklo historikoaren nondik norakoez jabetzeko kazetaritza lana*

Euskal Herriko historia garaikidea ulertzeko gakoak

Laster, GARArekin

